# ttipi ttapa

394

2005eko martxoaren 24a • XXV. urtea



## Ainhoa Viguera Asketa abesbatzaz 03

Leitzako Asketa Txiki abesbatzako 50 bat kide Katalunian izanen dira martxoaren 31tik apirilaren 3ra. Abesbatzako lehendakariak eman digu taldearen berri.



## Oinezkoek eta autoek elkarbizitzeko asmoa 04

Oinezko bideak eta garraio publikoa indartzeko asmoarekin hitzarmena sinatzeko asmoa du Lesakako Udalak Aceralia eta CRAN Fundazioarekin.

APIRILAREN 3AN

# Erdi Aroko bigarren Azoka eginen da Lesakan 10



ARGAZKIA. TELLETXEA



MUEBLES AMETS
larunbat arratsaldetan irekia
4000 m² erakusketa
Sarrera BERAtik da
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443
BISITATU GURE WEB ORRIA
www.mueblesamets.com
Malguki eta latex koltxoietan ESKAINTZA




S. FCO. JAVIER
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa
ELIZONDO
Tfno.·Faxa: 948581808
cpelizon@pnte.cfnavarra.es
Matrikulatzeko epea:
Apirilaren 4tik 15era
ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ

## DATUAK...

**• 1982an, J.J. Aizkorbe apaizak Haur Abesbatza sortu zuenean, han hasi zen kantuan. 1990ean, Juan Bautista Irazokik Asketa Gazte Abesbatza osatu zuenetik gaur egun arte, kantari segitzen du. Azkeneko 8 urteotan Asketa Abesbatzako lehendakaria da.**

**• Martxoaren 19tik 21era Igualadako (Katalunia) *Els Verdums* abesbatzako 50 haur ibili dira Leitzan. Martxoaren 31tik apirilaren 3a bitarte, leitzarrak joanen dira Kataluniara.**



**Ainhoa VIGUERA** *Leitzako Asketa Abesbatzako lehendakaria*

Argazkia: Aitor A.

# «Abesbatza iraunarazteko modu polita da beste lekuetakoak ezagutzea»

Aitor AROTZENA

**Lehenbiziko aldia da Asketa Txiki Abesbatza beste herrialdetako abesbatzekin elkartzen dela?**
Gisa honetako topaketak behin baino gehiagotan egin ditugu Asketan, baina aurreneko aldia da topaketa honetako partaideak haurrak direla. Orain arte beti horrelakoak gazte abesbatzarekin egin ditugu. Ttikiek hemen inguruko abesbatzekin egin izan dituzte topaketak, korua iraunarazteko modu bakarra delako mugimendu pixka bat ematea eta modu polita da beste lekuetakoak ezagutzea. Bestela ez da aurrera ateratzen.

**Zenbat lagun joanen zarete Leitzatik Kataluniara?**
Kantatzera 30 bat joanen dira, baina laguntzaileak eta autobusa aprobetxatzeko joanen direnekin 50 izanen dira. Hango abesbatzako kideen etxeetan egonen dira eta hori aberasgarri izanen da. Batzuk beldur pixkat dute, baina lehendik Leitzan egonen direnez, elkar ezagutuko dute eta harremana errazagoa izanen da.

**Zenbat jende biltzen duzue Asketa Abesbatzan?**

**«Leitzan ez dago Kultur Etxerik eta kontzertu gehienak elizan ematen ditugu, nahitaez. Jendeari kosta egiten zaio abesbatza entzutera hurbiltzea»**

Asketa Txikin 30 inguru biltzen dira eta Asketa Gaztean pixkat gutxiago, 25 inguru. Mutilak zortzi eta beste guztiak neskak.

**Non eskaini dituzue emanaldiak?**
Gehien bat gazte koruarekin mugitu gara, eta gure errepertorioarekin gehien bat Euskal Herriko herri euskaldunetan ibili gara, hau da, Nafarroako Erribera aldera oso gutxi mugitu gara. Kataluniara hiru bisita egin ditugu, hango koruekin topaketak egiteko. Katalunian oso ongi moldatu gara beti. Poloniako abesbatza batekin ere egin genuen topaketa, beraiek etorri ziren eta gero gu Poloniara joan ginen, eta lehengo urtean Pariseko Euskal Etxean aritu ginen. Pixkat mugituz gero ez da koru ikaragarria behar, lanerako prest dagoen jendea baizik. Gauzak ateratzen dira.

**Normalean txikian aritzen direnak koru gaztera pasatzen dira, edo behin adin batera ailegatutakoan abesbatza utzi egiten dute?**
Hamalau bat urterekin gazte koruan entsaiatzen hasten dira normalean, laguntzaile modura, kantak ikasten... Hasieran gehientsuenek gustora hartzen dute aldaketa, handiagoak sentitzen dira edo... ez dakit zer. Baina bizpahiru urte pasatzen direnean aldaketa izugarria izaten da. Berez afizioa dutenak gelditzen dira eta bestela desbandada ikaragarria izaten da. Adin kritikoa izaten da, baina iruditzen zait bide horrek, txikitik haundira pasatzeko aukera horrek, iraunarazten duela afizioa. Mutilen kasuan zailagoa da, ahots aldaketarekin asko joan egiten dira. Bi urtez isilik egon behar dute, nolabait esateko, eta gero berriz haiek berreskuratzea oso zaila egiten zaigu.

**Zerbait berezia egiten duzue mutil horiek berreskuratzeko edo inoiz kantari aritu ez direnak hasteko?**
Hor egon den jendeari burua berotzen saiatzen gara, animatzen diegu, baina oso zaila da.



Trenbidearen zola moldatzeko eta tuneletan argia paratzeko asmoa dago aurten.

**Martxoaren 7 eta 8an Autorik Gabeko Egunak izan ziren Lesakan. Joan den urtean hasi eta hilabeteko lehen astelehen eta asteartetan egiten da egun hori Lesakan. Sentiberatze lana egin nahi da egun hauekin, karrikan autoan mugitzea ez dela beharrezkoa gogoratuz. Baina Autorik Gabeko Eguna ez da ingurumena zaintzeko Lesakako Udalak gauzatzen duen ekimen bakarra. Bertzeak bertze, trenbidea egokitu eta garraio publikoa sendotu nahi dituen proiektu zabalago batean murgildua dago eta horren berri emateko eskatu diogu Gabi Igartzabal, hirigintza eta ingurumen zinegotziari.**

HITZARMENA EGINEN DU ACERALIA ETA CRAN FUNDAZIOAREKIN

# Oinezko bideak eta garraio publikoa indartu nahi ditu Lesakako Udalak

**Aitor AROTZENA**

Lesakako Autorik Gabeko Egunen berri Iruñeko Ingurumen Saileko CRAN fundaziora ailegatu zen, *Centro de Recursos Ambientales de Navarra* delakora. Nafarroan kontzeptu hauek lantzen duen erakundea da eta interesgarria iruditu zitzaien herri ttiki batean horrelako lana egitea. Beraiek zuzendu ziren Lesakako Udalera, fundazio horretan parte hartzeko. «*Mahai oso zabala da* –dio Gabi Igartzabalek– *arlo ezberdinak hartzen ditu eta esperientzia oso aberasgarria izan da. Errate baterako, mahai horretan dago Sidneyko Olinpiadan mobilitate estrategia antolatu zuen Nafarroako Unibertsitateko irakaslea. Azken batean hiri handietan eta herri ttikietan, maila ezberdinean, baina arazo berdintsua dugu. Urte bat baino gehiago dugu mahai horretan lanean eta iruditzen zaigu emaitzak ekarriko dituela. Ez gara Lesakarako bakarrik ari lanean, ingurua kontuan hartzen dugu, Bortziriak, Malerreka eta Baztan aldera zabaldu nahi dugu lan hau*».

### Hiru zutabetan banatutako plangintza

Lan honek hiru ildo nagusi ditu: alde batetik, herri barnean, herri bakoitzak egin dezala bere herrian autoak eta jendea elkarbizitzeko estrategia, bakoitzak bere espazioa izan dezan. «*Lesakako aurtengo aurrekontuetan sartua dugu partida bat, herriko muina edo erdigunean autoak baztertzeko, peatonalizatzeko. Horrek zer erran nahi du? Inguruan autoak uzteko tokiak prestatu behar direla eta herri barnea oinez edo bizikletaz mugitzeko antolatu*».

Bigarren zutabea, herriak oinezkoendako edo bizikletendako bideen bitartez elkartzea izanen litzateke. «*Herritik mugituta, trenbidez Bereautik alde batera, Berrizaun dugu eta*

## Gabi IGARTZABAL *Lesakako Hirigintza eta Ingurumen zinegotzia*



**Lesakako Autorik Gabeko Egunetatik abiatu da egitasmo hau. Erantzun ona izan dute egun horiek?**

Herriko bi ikastetxeak, bakoitza bere aldetik eta bere estiloarekin, gai honen inguruan lanean ari zirela jakin genuen. Irain ikastetxeak, konkretuki, arazo handia zeukan, guraso aunitz autoarekin joaten zelako seme-alaben bila, han ez zen denentzat tokirik eta Autorik Gabeko Egunaren ideia planteatu zuten, gehien bat jendea sentiberatzeko. Herri ttiki batean bizi gara, distantziarik ez dago azken batean. Planteamendu hori udalera ailegatu zen eta pentsatu genuen indar guziak bat egin, eta Udala kanpainan sartu zen. Erantzuna zein izan den? Gauza guziek denbora behar dute, autoa gure kulturan oso sartua dago. Baina nik uste Lesakako karriketan nabaritzen dela egun horietan auto guttixeago ibiltzen dela. Lana da eta inplikazioa behar da, mezu eta ideia hau zabaldu nahi dugu, ez bakarrik Lesakan, baita inguruko herrietara ere. Inguruko udalekin kontzeptu hau landu nahi dugu.

**Nola inplikatu nagi dituzue eskualdeko bertze Udalak?**

Oraindik ez gara bildu egitasmoa azaltzeko. Dena den, Iruñeko mahai horretan hitzarmena lantzen ari da Lesakako Udala, Nafarroako Gobernuko CRANekin, eta Aceraliarekin. Hitzarmen horretan bi atal nagusi ageri dira: bat herri mailan eta bertzea eskualdean. Hor etorriko litzateke inguruko udalei ideia zabaltzea eta parte hartzea. Mahai batzuk osatuko lirateke, gonbidapenak bidaliko ditugu eta espero dugu, udalek parte hartzea, uste dugu badela sentsibilitatea. Hor bildu eta gero ateratko dira konklusioak. Hitzarmenaren barrenean, teknikari bat kontratatuko da sei hilabetez, ideia hauei forma emateko. Espero dugu emaitza ona ematea. Hitzarmena oso aitzindua dago, hasiera batean martxoaren 18an sinatzekoa zen, baina arazo batzurengatik gibeleratu egin da pixko bat. Momentu honetan ez da itxi, baina oso hurbil dago eta sinatu orduko hasiko gara.

### “Eskualdeko bertze udalak ere inplikatu nahi ditugu egitasmo honetan”

*bertze aldetik, bertan, Bera. Ongi begiratuta, izugarrizko pagotxa dugu, bide zelai-zelaia daukagu eta Lesaka eta Bera arteko harremana bizikletaz landu nahi dugu. Zer egin behar dugu? Bide horretatik herri arteko komunikazioa hobetu. Bereautik Alkaiagako tunelera bitarte konpondu behar dugu, ia 6.000 euroko aurrekontua dugu aurten, zola txukundu eta tuneletan, bai Tellegikoan baita Igantzi aldera Onbordikoan ere, argia paratuko dugu»* dio Igartzabalek.

Bertze lan ildoa garraio publikoa da: *«Inguru honetan garraio publikoa zaharkitua dago, aspaldiko eskemak ditu, duela 40 urte berdin-berdin zegoen. Egoera zein den eta zein diren beharrak ikusteko lantzeko asmoa dugu. Mahai horretan beharrak ikusten dituzu, borondatea baduzu, baina herri hauetan baditugu gure mugak. Horrelako mahai batean aritzeak laguntzen dizu Nafarroako Departamentu ezberdinetan laguntzak bilatzen ere»*.

Garraio publikoaz eta trenabidea moldatzeko proiektuez gain, etorkizunerako bertze egitasmo batean ere lanean ari omen dira Lesakako Udalean. Asmoa, Bereau eta Biurgarai bitartean oinezko eta bizikletendako bidea moldatzea da. Beko Errotatik Bereau bitarteko kilometro terdiko zatia prestatzea izanen da zailena, bertatik trafiko ugari igarotzen baita.

### MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Mugikortasun jasangarriaren kontzeptua lantzen ari dira Iruñean egiten dituzten bileretan. Zer da hori eta nola gauzatzen ahal da autoen, motoen eta kamioien menpe dagoen gizarte honetan? Gabi Igartzabalek aipatu digunez, *«inori ez diogu erraten autorik ez erosteko, badakigu beharrezkoa dela. Baina autoa hartu baino lehen pentsatu behar dugu bertze nolabait ezin ote den egin bidai hori. Kontzeptu honetan hagitz garrantzitsua da garraio publikoa. Jendeari kalitatezko garraio publikoa eskaintzen badiozu, horrek aukera izanen du autoz egiten dituen joan-etorri batzuk autobusean egiteko, autoa guttiago erabiltzeko. Azken batean autoak lekua behar du eta hemendik autoz Iruñera edo Donostiara joan ondotik, han autoa aparkatzeko arazoa duzu berriz ere. Datu ofizialak hor daude eta publikatuak daude. Orain arte beti pentsatu izan dugu kutsadurarik handiena industriak sortzen duela, baina zientifikoek agertu dute kutsaduraren %30 edo 40a guk sortzen dugula gure auto edo kamioiekin. Mugikortasun jasangarriaren kontzetua horixe da azkenean. Aitzinera begira ez du balio handitu eta handitu egiteak, muga batzuk badirelakoz, bai toki aldetik, espazio fisiko eza, baita geroko ditugun ondorio latzen aldetik ere, hau da, kutsadura»*.



Argazkia: Ator

**Herrietan autoek eta oinezkoek elkarbizitzeko eta bakoitzak bere espazioa izan dezan estrategiak lantzen ari dira plangintza honen bidez.**

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada (Tirage):** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31780 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xarno, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Babes ezazu euskara ikasle bat! Gobernua zeu izan!

Nafarroako Gobernuak, 2005erako aurrekontuetan, gau eskolendako ematen zuen diru laguntza izugarri murriztu du. Laguntza hori orain arteko 528.827 eurotik 180.000 eurora pasako da, 2005ean.

Babesle kanpaina honek ikasleek orain ordaintzen dutena baino gehiago ez ordaintzea du helburu, eta Gobernuak ikasleko ordaintzen ziguna eskuratzea. Gure bi diru iturriak horiexek baitira, ikasleek ordaintzen dutena eta Gobernuak ematen digun laguntza. Ikasleek 325 euro eta Gobernuak, berriz, 250 euro ordaindu izan digu orain arte. Hori da bada, Gobernuak ordaindu izan diguna hain zuzen ere, eskatzen dizuguna. Nafarroako Gobernuaren axolagabekeriaren aurrean, "Gobernua" Zeu Izan zaitezen 2005ean. Halere, Gobernuaren jarrera alderazteko ahaleginetan segituko dugu, 2006an gauza bera gerta ez dadin.

Laguntzeko prest izanez gero, arestian aipatutako 250 euroak IKAko kontuan sar ditzakezu eta argibide gehiago jasotzeko gurekin kontaktoan jarri, gainera babesle txartela helarazteko zure helbidea beharko baitugu. Zuen diruarentzat inbertsio hoberik ezin asma dezakezula ziur egon, erdaldun elebakar bat euskaldundutzen laguntzen duzu/diguzu eta. Gogoan izan desgrabatzeko balioko dizula.
Babeslea norbanakoa edo lagun taldea ere izan liteke, jakina, (Familia, lankide, adixkide...) Ezin baduzu diru hori bildu, guttiago eman dezakezu, badakizu "erreka ttikiek egiten dituzte haundiak".

Gure kontua honako hauek dituzu: Nafarroako Kutxa/Caja Navarra: 20540152359140125554 Euskadiko Kutxa/Caja Laboral 3035005830 0580010842.
Kontakturako, gure helbidea honako hau duzu:
IKA - Arturo Campion Euskaltegia
Comedias, 14 - 4.
31001 IRUÑEA
Tfnoa: 948 222246
ika_campion@teleline.es

Eman, mesedez, kanpaina honen berri zure ezagunen artean; haiek ere laguntzen ahal digute eta. Izan ongi eta Mila esker.

**IKA**

### Euskara desagertzen utzi behar al dugu?

Euskara da Euskal Herria, herri egiten duena eta gure nortasunaren adierazle!
Euskaraz bizitzeko determinazioa eta eskubidea dugula erakutsi behar dugu eta ez utzi inongo estatuk inposaturiko mugek bana gaitzaten. Izan ere, Espainia eta Frantziaren aldetik jasandako zapalketaren ondorioz gure hizkuntza eremua 10 aldiz murriztu da eta erabilera %14koa da. Honen ondorioz, euskaldunok ez dugu eskubide kolektibo aitorturik eta bigarren mailako biztanleak gara gure herrian, hizkuntza arrotza inposatzen zaigularik.
Orain dela 20 urte modura %25a da eta gure hizkuntz preziatua desagertzeko zorian daukagu. Horregatik, gazteok argi dugu hizkuntza politika errotik aldatu beharra dagoela, eta ezin dela "Ley del Vascuenceen" oinarrituriko aldaketarik planteatu. Gainera, Sanz, Chivite,... bezalakoek euskara hilobira eraman nahi digute eta euskararen kontrako eraso bortitzak pairatu behar izan ditugu:

1) PSOEren «Ley del Vascuenceren» onarpena 1986an.
2) Euskarazko hedabideei Nafarroa osoan diru-laguntzak kendu
3) Iruñako Udletxeak iaz korrikaren amaiera eki-



## • IRAKURLEAK MINTZO •

taldia burtzeko baimena ukatu.

4) Euskaraz ikasteko ukazioak...

Euskararen historia bezain luzea den arrazoi sorta daukagu berau defendatzeko.

Elebistasuna = Euskararen heriotza!!!

**Goizuetako Gazte Asanblada**

### Beran ere Gaztetxea!

Bada urte bat Berako Gazte Asanblada martxan jarri zela. Orduz geroztik hainbat ekintza egin ditugu herriko gazteen aisialdian alternatiba berriak sortzeko: hitzaldiak, monologoak, gazte eguna, euskararen eguna... hauetan adin guztietako gazteengana ailegatu eta euskararen erabilera bultzatu nahirik.

Hala ere, hauek antolatu eta aitzinera eramateko, arazo nagusi bat izan dugu, leku propio baten falta. Adibidez:

-Kontzertuak egiteko ostatuen menpe.

-Hitzaldiak egiteko lekua eskatzen.

-Elkartzeko eta materiala gordetzeko leku falta, honek ekartzen duen material galtzerarekin.

-Erakusketa zein ikastaroak egiteko ezintasuna.

-...

Honi irtenbidea emateko gaztetxe baten beharra ikusten dugu. Espazio autogestionatu baten eredua proposatzen dugu, non gazteok gazteontzako alternatiba eraiki nahi dugun, elkartu eta gure arazoei eztabaidatzeko, elkar laguntzeko.

Hau da, dagoenarekin konformatzen den gazteri pasibotik, bere denbora eta formakuntza nahi duen bezala antolatzen duen gazteri aktibo eta kritikorantz pasatzeko gune erreferente bihurtu nahi du gaztetxeak.

Gaztetxea lortzeko lehendabiziko pausuak ematen hasiak gara eta seguru gaude guztion konpromezuarekin lortuko dugula. Animo!

**Berako Gazte Asanblada**


# DEPOSITO PODIUM

## Errentagarritasuna eta likidezia mailarik altuenean




## Goranzko Aurrezkia + Inbertsio Fondoa

- Erabilgarria edozein momentutan inolako kosturik gabe.
- Interesen ordainketa seihilero.
- Gehienezko epea: 3 urte.
- T.A.E.: % 2,85koa, Goranzko Aurrezkia eta Inbertsio Fondoen artean erdibana egindako inbertsioarentzat kalkulatua.
- Posible da banatzea %70a Goranzko Aurrezkia eta %30a Inbertsio Fondoaren artean.

- Malgutasun osoa: dugun Fondo aukera zabalaren artean zuk aukeratzen duzu nahi duzun Inbertsio Fondoa.
- Epea: 3 urte.

www.ruralvia.com

Egunero hobekiago egitearen erronka

NAFARROAKO RURAL KUTXA

ADINEKOAK

# Arkupeak elkartearen Soinketa Eguna martxoaren 31n eginen da Beran

Kiroldegian erakustaldia egin ondotik Zalain eta Zubiondo jatetxeetan bazkalduko dute

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratuen elkarteak urtero egiten duen gimnasia edo soinketa erakustaldia aurten ere Berako kiroldegian eginen da martxoaren 31n. Eguerdiko 12etan hasiko da herrietako talde ezberdinen erakustaldia.

Ondotik, 13:30ak aldera, autobusak aterako dira kiroldegitik Zubiondo eta Zalain jatetxeetara, hauetan eginen baita bazkaria 14:00etan. Bietan menu berdina izanen dute: urdaiazpikoa, pate eta fritoak: piper beteak, arrain zopa, legatza erromatar erara, sorbetea, azpizuna guarnizioarekin, txanpaina (5 lagunendako botil bat), eta moka tarta txokolatearekin, dena ura, ardoa, kafea eta kopa normalarekin hornitua. Bazkalondoan, 17:00etatik 19:00etara, dantzaldia izanen da eta gero autobusak herrietara bueltan abiatuko dira.

Izen-ematea martxoaren 10etik 21era egin behar zen eta orduan jakinaraziko zitzaien parte hartzaileei autobusak herri bakoitzetik noiz abiatuko ziren. Soinketan arituko diren bazkideek ez dute deus ordaindu beharrik izanen. Gainerako bazkideek eta soinketa egin baina bazkide ez direnek 25 euro ordaindu beharko dute.


ARTXIBOKOA

**Urtean soinketa eta yoga ikastaroetan landutakoa jendaurrean erakusteko modua izanen dute erretiratuek.**

### APIRILAREN 16TIK 22RA LA MANCHARA

Bertzalde, apirilaren 16tik 22ra, Arkupeak elkarteak zazpi eguneko bidaia antolatu du La Manchara. Almuradiel herrian izanen dute egonaldia eta Kixoteren Bidea eginen dute. Apirilaren 16an, goizeko 7:30etan abiatuko da autobusa Irundik. Errepide nagusian bidaiariak bilduko ditu eta bidean bazkaldu ondotik, Almuradieleko Casa Marcosen hartuko dute ostatu.

Apirilaren 17an Almuradiel-Puerto Lapice-El Toboso-Campo de Criptana ibilbidea eginen dute, herri tipikoak ikusiz eta Valdepeñaseko ardoa eta Mantxako gasna dastatuz. Apirilaren 18an Almuradiel-Gazteluen Bidea-Almagro ibilbidea eginen dute, apirilaren 19an Tablas de Daimieleko parke naturala eta Lagunas de Ruidera ikusiko dituzte. Apirilaren 20an Almuradiel, Valdepeñas, Viso del Marques, Almuradiel, Las Virtudes ibilbidea osatuko dute. Hemen Espainiako zezen plazarik zaharrena eta mundu osoan laukia den bakarra ikusiko dute. Apirilaren 21ean Ciudad Real bisitatuko dute eta 22an berriz ere herrietara bueltan abiatuko dira, bidean bazkalduz.

### MAIATZEAN BENIDORMERA

Aitzinera begira, maiatzaren 10etik 24ra Benidormera bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak. Maiatzaren 10ean autobusa aterako da Irundik 6:45etan. Benidormen Fenicia hotelean izanen dira, pentsio osoan. Bi bidai hauetan izen emateko epea akitua da.











BERA

# Euskal Herria-Katalunia jardunaldia egin berri dute ikastolan

Kataluniatik etorritako ikastetxe bati gure kulturaren berri eman diote

**Amaia eta Ainhoa**

Kataluniako L'Hospitalet de Llobregateko Bisbe Berenguer Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak Euskal Herrian barrena egiten ari den txangoa probextuz, Berako Labiaga Ikastolak Euskal Herria-Katalunia jardunaldia antolatu zuen martxoak 15ean Kultur Etxean. Jaialdi horretan gure kultura aurkezteko hainbat ekitaldi egin zituzten: agurra, Gure Herria, Gure Kirola eta Gure Kultura tailerrak, hamaiketakoa eta dantza jaialdia egin zuten ondorengo dantzak eskainiz: Agurra, Makil dantza, Fandagoa, Arin-Arina eta Agintariena. Hau bukatuta, Eztegara pilotalekuan pilota partida egin zuten eta segidan oparien banaketa, Jardunaldia akautzeko. Honetaz gain aipatu, martxoaren 14an, Labiagako DBH-ko 22 ikasle eta 3 irakasle Suediara joan zirela Comenius izeneko Europar proiektuaren barnean. Apirilean, berriz, Errumaniara joanen da ikasle talde bat. Duela urte batzuk Suediatik eta Errumaniatik jasotako bisitak itzuliko ditu honela Labiaga Ikastolak.



Argazkia: Jon Altzuguren

**L'Hospitalet de Llobregateko ikastetxeko neska-mutikoek, kultur etxean eskaini zitzaien jaialdia ikusten.**

### *Udal Batzorde eta erakundeen ordezkariak izendatu dira*

Udal Batzordeetan eta beste erakundeen ordezkari batzuk izendatu gabe gelditu zirenez, Udalak egindako azken batzarrean ondorengo izendapenak egin ditu: Kirol Batzordean, Julian Lekuonaren baja onartuta Javier Leitza arituko da, Jose Antonio Igoa Euskara Batzordean, Hiri Hondakinen Mankomunitatean Jose Antonio Igoaren ordez Mª Sol Taberna, Urruñako Udalarekin sinatutako komenioaren Jarraipen Batzordean Helena Santesteban alkatea, Rosalinda Gallego, Alfredo Goienetxe eta Jon Abril zinegotziak, eta azkenik, Bortzirietan zerbitzu publikoak hobetzeko batzordean Helena Santesteban, Jon Abril eta Manuel Iriarte izanen ditugu.

### *Berako Bestatako bilera*

Martxoaren 15ean Herriko Etxean bestak antolatzen hasteko bilera egin zen. Aurtengo bestetarako aurrekontua iaz baino txikiagoa izanen da, 62.000 eurokoa eta Kultur Batzordeko kideak eta herriko koadrila batzuk elkartu ziren diru horrekin zer egin daitekeen proposatzeko. Honetaz gain, hainbat gaien inguruan aritu ziren solasean: besta herrikoiagoak egin nahi dira, koadrilen arteko harremana eta jendearen partehartzea bultzatu… Lehengo bilera honetan ez da programako deus ere zehaztu, ideiak hartzeko egin zen. Hurrengo bilkura apirilak 19an 20:00etan izanen da.

FLASH

### *Areto-fuboleko Udaberriko Kopa Beran*

Berako Toki-Ona kiroldegian areto-futboleko Udaberriko Kopa antolatu dute. Txapelketa hau parte hartu nahi duten Bidasoaldeko talde guziei irekia dago eta izen emateko epea martxoaren 23an itxiko da. Horretarako talde bakoitzak 80 euro ordaindu beharko ditu. Izen emateko eta informazio gehiago jasotzeko 948 630215 telefonora deitu behar da. Partidak larunbat eta igandetan jokatuko dira kiroldegian, apirileko lehen astebururan hasita.

### *Bidasoako XVIII. Bertso Paper Lehiaketako Sariak*

Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, datorren apirilaren 8an, ortziralean, arratsaldeko 18:00etan eginen da Bidasoako XVIII. Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa.

### *Zirkoa eta Txotxongiloak Erakusketa*

Datorren apirilaren 4tik 15era irekia egonen da Corrado Masacciren «Zirkoa eta Txotxongiloak» izeneko erakusketa. Erakusketa didaktikoa eta ibiltaria da eta bisita gidatuei esker harreman zuzenean dira egilea eta ikusleak. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara idekia egonen da Kultur Etxean.

ANSONEA Jatetxea
- Eguneroko menua eta karta
- Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 · 948 631 155 · BERA

PAUSOKA
MASAIA ZENTROA
AKUPUNTURA
Mugaldea 2, 1. esk • BERA
Tel. 948 63 11 46 • 639 73 24 26

BAR
OSTATUA

LESAKA

# Erdi Aroko bigarren Azoka eginen da apirilaren 3an

## Zaine Rekondo herritarra atxilotu zuen Guardia Zibilak martxoaren 17an

**Aitor AROTZENA**

Lesakako Kultur Batzordeak, Bertizko Partzuergo Turistikoaren eta Cederna-Garalur erakundearen laguntzarekin Erdi Aroko Bigarren Azoka antolatu du apirilaren 3an. Joan den urtean lortutako arrakasta ikusita, aurten feria honen egitaraua sendotzea eta ekitaldiak herrian barna zabaltzea erabaki du Udalak. Plaza Zaharra ez ezik, Zabaleta dorrea, Alondiga, Bittiria karrika eta aparkalekua izanen dira Erdi Aroko Azokaren ekitaldien lekuko.

Goizeko 10etatik iluntzera arte karrika animazioa, haurren txokoa, tailerrak, jokoak, salmenta postuak izanen dira. Karrika animazioari dagokionez, Maimur taldea, falkoneria edo *zetreria*, magoa, perkusioa, orkestra gizona eta bertzelakoak ikusiko dira. Tailerretan eta salmenta postuetan, keramika, beira, harria, ehoziri edo *bolilloak*, urrelantzea, loreak, forja eta bertzelako eskulanak egiten ikusi, ikasi eta erosteko modua ere izanen da. Txoko ezberdinetan, usadiozko jokuetan aritu edo gaztaogia eta bertako produktuak egiten ikasten ahal da. Goiz eta arratsaldez, XVI. mendeko euskal jantzien erakusketa izanen da Alondigan. Lesakara egunpasa joateko bertze aitzakia bat ere izanen da, zortzi lagunendako Erdi Aroko bazkaria Kasino jatetxean zozketatuko baita. Zozketa 13:00etan eginen da Plaza Zaharrean. Eguna giro ederrean akautzeko, 18:30etan Plaza Zaharrean Muxikoen dantzaldia eginen da Patxi Perezek gidatua.



Argazkia: TELLETXEA

**Salmenta postuez eta erakusketez gain, egun osoan karrika animazioa izanen da Erdi Aroko Azoka egunean.**

### *Zaine Rekondo atxilotua*

Martxoaren 17ko goizaldean atxilotu zuen Guardia Zibilak Zaine Rekondo. Goizeko 3:30etan Lesakako bi etxebizitzetan sartu zen Guardia Zibila eta ondotik Zaineren bizitokira joan ziren. Berara. Handik Zaineren amaren etxera itzuli ziren Lesakara eta han hiru orduz miaketa egin zuten. Atxiloketa salatzeko hainbat mobilizazioa egin ziren eta ortzegunean berean ezohiko batzarra egin zen Udaletxean.

### *Beti Gazteren urteko batzarra*

Apirilaren 1ean, ortziralarekin, eginen du Beti Gazte elkarteak bere urteko batzarra, 19:30etan lehen deialdian eta 20:00etan bigarrenean. Iazko akta irakurri eta, hala badagokio, onartu ondotik, 2004ko kontu eta ekitaldien balantzea, 2005ko ekitaldiak eta aurrekontua, kuotak eguneratzea eta zuzendaritza batzordea berritzea aztertuko dituzte, eskari-galderekin akautzeko.

## FLASH

### *Iñaki Fagoaga txapeoaren ondotik gose greban*

Euskal presoek txandaka egiten ari diren kanpainaren barnean, martxoaren 5etik 10era txapeoan egon zen Iñaki Fagoaga preso lesakarra. Hamar egunez bere zeldatik atera gabe egon zen. Orain, estatus politikoa eskatzeko gose grebari ekin diote preso guziek.

### *Txoko-Txiki ipuin lehiaketa*

Tantirumairu ikastolak XXII. Txoko-Txiki ipuin lehiaketa antolatu du 6-12 urte bitarteko ikasle lesakarrei zuzendua. Lanak apirilaren 5a baino lehen igorri beharko dira ikastolara. 1. eta 2. mailako ikasleen ipuinak guttienez orrialde bateko luzera izanen du; 3. eta 4. mailakoena orrialde terdikoa eta 5. eta 6. mailakoena bi orrialdekoa.

### *Herritarrek egindako bidaiak solasgai*

Apirilaren 1ean, ortziralarekin, Xabier Saralegi lesakarrak Spantik mendira egindako espedizioari buruzko solasaldia eskainiko du Arranon, 20:00etan. Apirilaren 15ean, berriz, Mattin Etxabidek «Kuban esperientzi bat brigadetan» solasaldia eskainiko du, ordu eta leku berean. Arrano Elkarteak, Udalaren laguntzarekin antolatu ditu solasaldi interesgarri hauek.

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

KATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

# Jende aunitz bildu zuen martxoaren 13an egindako Usategietako Auto Igoerak

Giro ederra sortu zen Etxalartarrek Korrikan egin zituzten hiru kilometrotan

**Joseba eta Nerea**

Arrakasta handiz egin zen joan den martxoaren 13an Usategietako VIII. Auto-Igoera. Espero zen bezala, goiz-goizetik jendez beteak ageri ziren Usategietako errepide bazterrak, eguraldi ederrarekin Euskal Herri osoko bisitari aunitz hurbildu baitzen Etxalarrera.

Goizeko 9etan itxi zuten errepidea eta 10,30etan hasi zituzten autoek lehenbiziko entrenamenduak. Ondotik, bi igoera egin zituzten partehartzaileek, bata bertzearen segidan. Ez zen aparteko istripurik izan. Auto bat errepidetik ateri zen eta bertze batzuk ezusteko ttikiak izan zituzten baina orokorrean arazorik gabe burutu zen igoera. Eskuadeko partehartzaile gutti zegoen eta Etxalartik bat ere ez. Bernardo Zozaia Iruñarra izan zen irabazle bere BMV M-3 kotxearekin 3 minutu 45 segundu eta 86 ehuneneko denbora egin baitzuen. Josetxu Duperu izan zen bigarren eta Juan Mari Larrazabal hirugarren.

Arratsaldeko 3etan egin zen herriko frontoian sari-banaketa eta irabazle guztiek trofeoak eta txanpain botilak jaso zituzten Eguzki Sporteko antolatzaileen eskutik. Hala ere, sari banaketaren aitzinetik Jesús Ermigarate auto-gidariari omenaldia egin zitzaion, joan den urtean auto istripuz hila. Oroigarri bat eman zitzaion anaiari eta txalo zaparrada ederrarekin oroitu zuten bildutakoek auto-gidari gaztea.

Orokorrean erran dezakegu giro ederra izan zela herrian auto-igoeraren aitzakian eta jende aunitzek aprobetxatu zutela igoera egunpasa Etxalarrera etortzeko.



Argazkia: Joseba Olagarai

**Koadrila polita bildu zen joan den martxoaren 12an Korrikan parte hartzeko. Larunbat goiza izaki, eta eguraldi ederra gainera, ez zen aitzakiarik Etxalartarrok hartuak genituen hiru kilometroak lasterka ez egiteko. Bentan Altxata elkarteak hartu zuen Korrikaren lekukoa eta Udalak egin zuen hurrengoa. Atseden ttiki baten ondotik, eta Lesakan barna pasatu ondotik, Berako zentralaren parean Etxalarko Gazteek egin zuten 383. kilometroa. Horrela, hiru kilometrotan utzi genuen etxalartarrok euskararen aldeko oihua, aurtengo lemarekin bat eginez: "Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai!".**

### Bataioak

Heldu den martxoaren 27an eginen dira aurtengo bataioak. Hiru haur bataiatuko dira: Apeztegiako Julen Otxoteko Retegi urriaren 21ean jaioa, Pablo Iratzoki Olaizola urriaren 10ean jaioa, eta Buztingorriako Ane Telletxea Iribarren, otsailaren 5ean sortua.

### Udal garbitzaile berria

Koro Goienetxek hartu du orain arte Blanca Esther Bertizek egiten zuen lana. Martxo hasieratik Koro arduratzen da Herriko Etxea, Iharria, Kultur Etxea, Landagain eskola eta kontsultategia garbitzeaz.









IGANTZI

# Ur-hornidura eta saneamendu lanak Hirurteko Planean sartu dira

## Hainbat herritarrek Korrikan parte hartu zuten errepide nagusian

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Hirurteko Toki Azpiegitura Planaren barnean sartu du Igantziko ur-hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lana. Zehazki, karrikan edateko ura eramaten duten hodi edo tubo gehienak berrituko dira eta lan hori egiterakoan ukitzen den urzikinen sarearen zati bat ere moldatuko da. Gero, karrika horien zolaberritze lanak eginen dira. Inbertsio hauek premiazkotzat jo ziren bere garaian, hodiak hagitz egoera kaxkarrean daudelako. Inbertsioa osotara 663.037 eurokoa izanen da. Nafarroako Gobernuak 443.013 ordainduko ditu eta bertze 222.023 euroak Igantziko Udalak ordainduko ditu.

### *Korrika*

Karrikatik pasatzen ez bazen ere, Berrizaun inguruan hiru kilometro hartu zituzten aurtengo Korrikan ere Udalak, Eskolak eta Guraso Elkarteak eta Biltokik. Jende aunitz aritu zen laisterka.





ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

**Igantziko Udalak, Igantziko eskolak eta Guraso Elkarteak, eta Igantziko Biltokik kilometro bana hartu zuten.**










ArkiLanak SL

ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa

Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta:arantxaci@terra.es
Santiago, 55 ELIZONDO

ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
URBANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONTSULTAK
LUR NEURKETAK

ARANTZA

# Gimnasia eta aerobic ikastaroak abiatu ziren martxo hasieran

Herritarren ordezkaritzak aurtengo Korrikaldian parte hartu zuen





Korrikaren bidean, ttipi-ttapa telebistako kamerei esker hartutako irudia da. Tartean herritarrak ere ageri dira.

**Nerea ALTZURI**

Udaberriko giroa aste bat lehenago sumatu dugu eta urtesasoian sartu berritan, Aste Santuko egunetan gaude. Ohi bezala, oporretan daude herriko ttikienak hamar egunez; bertze zenbaitek ere zubi luzea izanen dute egun hauetan; eta eliztarrek, aldi honetan ere, asteburu normaletan izaten diren bi mezez gainera, ortzegunetik arratsaldez Aste Santuko elizkizunak izanen dituzte.

Iaz ez bezala ordea, aurten beranduxeago, gimnasia eta aerobik ikastaldiak abiatu dira. Hilabete hasieran, 25 inguru hasi ziren ikastaroetan. Astean bitan ari dira, astearte eta ortzegun arratsaldetan. Lehenengo ordua gimnasia egiteko, 18:30etatik aitzinera; eta 19:30etatik 20:30etara aerobik saioa egiten dute. Mari Sol Sarratea legasarra irakasle dute eta gorputza mugitzeko saioak eskolako gimnasioa gune dutela burutzen dituzte.

### Herritarren Korrikaldia

Herria maldaz betea egonagatik, hizkuntzaren alde egiterakoan ez da sekula aldaparik herritar gehienen edo ia gehienen artean. Korrikan parte hartzean, euskararen aldeko korrikaldian partaide garela erran nahi du, baina egunerokoan ere euskararen aldeko bidea, hitzez ez ezik ekintzez ere islatzen segitu behar dugu. Nolanahi ere, martxoaren 12ko goizean, herriko ordezkaritza bat eskualdean korrika pasatzearen lekuko izan zen. Gazte Asanbladak, Herriko Etxeak, Ekaitza Elkarteak eta Herri Eskolak kilometro bana hartu eta lekukoa elkarri pasatuz, lau kilometroetan laster egin zuten. 368tik hasi eta 371. kilometroa pasatu arte bertzeak-bertze herritarrez osaturiko tropela izan zen. Sunbillako tuneletik Berrizaungo bidegurutze arteko zatia egin zuten.

### Ur-deposito berrirako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza eman du ur-deposito berria egiteko eta ura hartzeko eta eramateko sarearen zati bat berritzeko. Lanen aurrekontua 286.806 eurokoa da eta Hirurteko Planetik 224.747 euro ordaindu ko dira, 22.499 euro Plan Berezi batetik eta Udalak 39.559 euroko kreditua eskatu beharko du.

### Errepidera begira

Lerro hauek idazten, San Jose ermita eta San Juan Xar arteko errepide zatiko bihurgune batean izandako lur erortza baten ondorioz, harrizko pareta egiten ari ziren. Hori dela eta, errepideko langileak eta semaforoak ibilgailuen bidea zuzentzen ari dira. Beraz, zatitxo horretan egiten ari diren lan horrengatik herritik eta herrira datozen autoko gidariek seinaleei kasu egin behar!













LANA

# Azken urteetako langabezi tasarik handiena dago eskualdean

659 langabetuk emana zuten izena otsailean Doneztebeko Bulegoan

ttipi-ttapa

Otsail hondarrean 659 langabetuk izena emana zuten Doneztebeko Enplegu Bulegoan, urtarrilean baino 17 gehiagok. Kopuru horrek azkeneko bortz urtetako langabezi datu kaxkarrena utzi digu. Joan den urteko azarotik, Baztan, Bertizana, Malerreka eta Bortzirietako langabezi tasak %37,85 goiti egin du eta Nafarroa osoko lan merkatuan, bizilagunen arabera langabetu kopuru handiena da eskualde honetakoa.



659 langabetuetatik gehienak, 366, emakumeak dira.

2004ko urtarrilean 620 langabetu zeuden eskualdean, kopuru handia, baina urte osoan jausten joan zen, urrian zeuden 466 langabetuak arte. Kopuru hau, azken bortz urteotako ttikienetako zen, baina azaroaz geroztik kasik 200 langabetu gehiago daude inguru honetan. Azaroan zerbait goiti egin zuen langabeziak, 494 langabeturekin, baina igoerarik kezkagarriena abenduan izan zen, 624 langabeturekin %26,3 igo baitzen kopurua.

Adinaren arabera, 105 langabetu 25 urtez beheitikoak dira, 48 emakume eta 57 gizaseme, eta gainerako 554 langabetuak 25 urtez goitikoak, 236 gizaseme eta 318 emakume. Beraz, osotara, 366 emakume eta 293 gizon daude langabezian, urtarrilean baino 6 emakume eta 11 gizon gehiago.

Lan sektoreei dagokienez, langabezia industrian, zortzi langabetu gehiagorekin, eraikuntzan eta zerbitzuetan igo zen. Aitzinetik lanik egin gabeko langabetuak hiru ziren otsailean.

### EGOERAK HOBETUKO DUEN ITXURARIK EZ DU

21.364 bizilagun hartzen dituen eskualde batean 659 langabetu izatea kopuru kezkagarria da eta ez dirudi, epe motzean, egoera hobetuko denik. Zalaingo tubo lantegian Condesa enpresak aurkeztu duen Plan Industrialaren arabera, produkzioa ez ezik lanpostuak ere murriztuko dira lantegi honetan. Horrek eragina izan dezake lantegi horren inguruan sortu diren zeharkako lanpostuetan ere.

## Condesak urtebete lehenago eginen du inbertsioa Zalainen

Condesako zuzendaritzak Zalaingo tubo lantegiko enpresa batzordeko kideekin martxoaren 14an egindako bileran jakinarazi zuenez, Zalainen egin beharreko inbertsioak urtebete lehenago eginen dira, 2009an. Horretaz gain, zuzendaritzak adierazitakoaren arabera, tuboa produzitzen duten 7 makina ez omen dira inbertsioa berriak egin baino lehen kenduko. Honela, Zalaingo produkzio ahalmena 2009 urtera arte mantenduko da, guttienez.

2005-2010 Plan Estrategikoan egindako aldaketa hauek baikortasunez hartu dituzte Enpresa batzordeko kideek, baina zuzendaritzak ez du argitu oraindik zer gertatuko den inbertsioak egiten direnean soberan gelditzen ahal diren langileekin.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
Melamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobleak eta osagarriak
KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

## BERTSOLARITZA

# Xabier Silveirak irabazi du aurten ere Nafarroako txapelketa

Txapelduna, Arozena, Zelaieta eta Etxabe arituko dira Euskal Herrikoan

ttipi-ttapa

Xabier Silveira izan zen irabazle martxoaren 13an jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean. 425 punturekin bere hirugarren txapela jantzi zuen Lesakako bertsolariak, bigarrena segidan. Espero zuen, baina gustora ageri zen Silveira txapelarekin: *«Espero nuen txapeldun izatea eta hala izan ez balitz neure buruarekin haserretuko nintzateke. Ilusio handia paratu nuen saioan, eta ilusio handia egin zidan berriz ere txapeldun nintzela jakiteak»*.



**Bere bi anaiei eskaini die aurten txapela Xabier Silveirak.**

Azpitxapeldun, 405,5 punturekin, Estitxu Arozena izan zen. Hirugarren postua Julen Zelaieta beratarrak lortu zuen 393 punturekin. Laugarren Joxe Juan Zubieta "Etxabe" izan zen, 391rekin; Jon Barberena bosgarren 382rekin; Xabier Legarreta "Arano" ondotik 380 punturekin; eta Juan Mari Lopez eta Ibarra zazpigarren eta zortzigarren, 365,5 eta 356,5 punturekin. Gainera, sailkatutako lehenbiziko lauek, Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Julen Zelaieta eta Etxabek Euskal Herriko txapelketa nagusirako txartela lortu zuten. Nafarroako txapelduak adierazi duenez, *«Nafarroako txapelketa bukatu berri da eta ez dut txapelketa nagusian pentsatu nahi oraindik. Ez dakit zer lan egin beharko dudan udaberrian eta udan txapelketa nagusia prestatzeko. Dakidana da orain lau urteko lana hobetzeko helburuz joanen naizela ni txapelketara, eta horrek erran nahi du finalean ez banaiz sartuko hor-hor egonen naizela. Hamargarrena egin nuen eta ez da izanen hura errepikatzea. Baina helburu horrekin prestatuko dut txapelketa nagusia»*.

Jende parrasta bildu zen Lakuntzako pilotalekuan finala ikustera eta giro ederra izan zen saioan. Azken 24 urteetan Sakanan egin den lehenbiziko finala izan da aurtengoa. Antolatzaileak hagitz gustura zeuden bai finalak bai txapelketa osoak izandako martxarekin.

## EUSKARA

# Udan euskara ikasleak hartzeko deia

Eskualdeko Euskara Zerbitzuetatik jakinarazi dutenez, udan euskara ikasten ari den jendea hartzeko prest dauden familia euskaldunak behar dira.

Familiek zenbat baldintza bete behar dituzte euskara ikasleak hartu ahal izateko. Egonaldiak hilabetekoak izanen dira gutxienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izanen da. Ikasleak 18 urtetik goitikoak izanen dira. Egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute eta ikaslearentzako logela bat libre izan beharko du familiak. Familiak, horren truke, hilabeteko 580 euro jasoko du. Izen emateko epea apirilaren 15ean bukatuko da. Horretarako edo informazioa jasotzeko, Euskara Zerbitzuetara jo behar da edo Urrats Euskaltegira deitu, 943 474447 telefonora. Internet-en ere jasotzen ahal da informazioa, www.egonaldiak.net helbidea.

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
Igantziko Bentak
✆ 948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodilloak.

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

616 513 491
Pitti
ESKABAZIOAK
DONEZTEBE (NAFARROA)

ITUREN

# Aurtizko Ostatua berriz ere irekiko dute

Korrika ofizialean eta Ttikian hainbat herritarrek parte hartu zuten





UTZITAKO IRUDIAK

Iturengo eskolako neske-mutikoek ere Korrika egin zuten.

**Arkaitz Mindegia**

Aurtizko ostatua duela bi urte itxi zen, eta orain, Aste Santu inguruan, berriz ere irekiko dute. Herrian hutsune handia nabaritu zen azken urteotan, eta albistea pozik hartu dute herritarrek. Bi urte hauetan itxita egon arren herriko bestetan gazteek irekitzen zuten, bakarrik bestetako dirua ateratzeko. maizter berriak Leitzarrak dira eta hamar urterako hartu dute.

## *Korrika Ttikia*

Martxoaren 13an egin zuten Iturengo eskolako haurrek korrika ttikia. Aste guztian abestia ikasten eta petoak prestatzen aritu ondotik ortziralean 2:30etan egin zuten herrian barna korrika ttikia.

## *Korrika-14*

Nahiz eta korrika iturendik ez pasa, Ibintza kultur taldeak kilometro bat erosi zuen eta jende aunitz hurbildu zen larunbat goizean. Kilometroa Sunbilla herri bukaeran hasi eta bide zaharretik saihesbidea hasi artekoa zen. Lekukoa esku aunitzetan ibili zen baina hartzen lehendabizikoa Izaro Ariztegi izan zen.

## *Emakumeen afaria*

Herriko emakumeek martxoaren 8ko Emakume langilearen eguna ospatzeko, urtero bezala martxoaren 13an Altxunea erretegian afaria egin zuten. Denetara 23 emakume bildu ziren eta giro ederrean ospatu zuten.

## *Herriko trikitilariak Bartzelonan*

Bartzelonako Euskal Etxeetan ekitaldi ugari antolatzen dituzte urte guztian, eta aurten, Arkaitz eta Mirian herriko gazteak ekitaldi horietako batzuetan egoteko aukera izan dute. Euskal Etxean sagardo eguna antolatu zuten eta bertsolari, trikitilari eta ehun lagundik goiti bildu ziren bazkarira. Bazkaldu ondotik euskal musika-doinue eraman zuten Bartzelonako karriketara trikitixa eta panderoa joz.

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

udana salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550


ERDI AROKO
II. Azoka
Apirilak 3 LESAKA
(Nafarroako erresuma)
Egitaraua
azoka
erakusketa
zozketa
dantzaldia
Antolatzaile/Organiza: Lesakako Kultur Batzordea
Laguntzaile/Colaboran:
Nafarroako Gobernua

GIZARTEA

# Haurrak udan hartzeko deia egin du Saharar Herriarekin Elkartasuna Taldeak

## Martxoaren 31rako apuntatu behar da



Basamortuan hilabete beroenak direnak Euskal Herrian igarotzen dituzte.

ttipi-ttapa

Udan Saharako haurrak etxean hartzeko deia egin du Saharar Herriarekin Elkartasuna Taldeak eta hala egin nahi dutenek, martxoaren 31 arteko epea izanen dute izena emateko.

Horretarako, Leitzaldean interesatuak daudenek Leitzako Maimur edo Astiz liburu dendetan eman behar da izena; Malerrekakoek 948 451 787 telefonora deitu behar dute eta Baztangoek, 948 581 277 telefonora.

Jakina denez, Euskal Herri osoko herrietara hainbat eta hainbat haur saharar etortzen dira bertako familiekin uda pasatzera.

Aljeriako lurretan, Saharako basamortuan dituzten errefuxiatu-kanpamendutan, udan egiten duen bero jasangaitza dela eta, batez ere haurrak dira eragin kaltegarriak izaten dituztenak. Udako hilabete beroenak goxoago pasatzeaz gain, beaien osasun arazoak tratatzen dituzte hemen.

Aurten, ezagutzera eman dutenez, Nafarroan 80 familia behar dira, saharar umeak beraien etxean hartzeko.



EUSKARA

# Bortzirietako 120 enpresa, saltoki eta erakundek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Martxoaren 19an eman ziren ziurtagiriak Beran



ttipi-ttapa

Martxoaren 19an, San Jose egunez, Bai Euskarari Ziurtagirien banaketa egin zen Berako Kultur Etxean. Bortzirietako 120 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, Kontseiluaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen aurrikuspen guztiak gaindituz. Eneko Fernandez lesakarra eta Iñaki Iratzoki bi hilabetez, urtarrila eta otsailean bisitak egin dituzte Bortzirietako elkarte, enpresa, denda, ikastetxe eta bertze erakundetara, Bai Euskarari Akordioaren eta eragile hauek ziurtagiria eskuratzeko bete beharreko urratsen berri emanez.

### Hiru ziurtagiri mota

Bistan denez, emaitza bikaina izan da eta hartutako konpromisoen arabera hiru ziurtagiri ezberdin izaten dira. Baina ziurtagirien banaketarekin ez da akautuko Bai Euskarari Akordioaren lana, Kontseiluko teknikariek bisitak eginen baitituzte heldu den urtean konpromisoak bete diren edo ez ikusteko. Ez bada betetzen ziurtagiria kenduko da eta bete baldin bada, mantendu edo konpromiso handiagoa nahi bada, bertze mota bateko ziurtagirira promozionatzeko aukera izanen da.



®SILOTITE
high Speed

**Silo plastikorik hoberena**












**AROZ - BERRI, S.A.**
948 58 10 21 / 948 58 02 58 / Faxa: 948 45 21 03
E posta: arozberri@infonegocio.com
N-121 B, Km. 54 errepidea
31730 IRURITA (NAFARROA)

BERTIZ

# Natur Parkeko Interpretazio Zentruaren beheko solairua moldatzen ari dira

Bisitarien %15-20a ikasleak izaten dira



ttipi-ttapa

Bertizko Natur Parkeko Interpretazio Zentruaren beheitiko solairuko instalazioetan zenbait moldaketa egiten ari dira. Beheko solairu honetan Bertizko parkeari eta Nafarroako mendialdeko bailarei buruzko informazioa ematen da. Moldaketa lanen bitartez, solairu honetako ordenagailu eta paneletan ageri diren informazioa berrituko da. Informazio hauek aurkezteko euskarriak ere aldatuko dira, eta Naturaren Interpretazio Zentruak aukera izanen du parkean etengabe gertatzen diren informazio berriak agertzen joateko. Hala, solairu horretako edukien eskema aztertu da eta ordenagailuendako programa berria instalatu da.

Joan den urtean Bertizko Natur Parkea bisitatu zutenetik %15 eta %20aren artean eskoletako ikasleak izan ziren. Horietarik bortzetik bat hezkuntza materialekin egiten du bisita eta gainerakoek denborapasa gisara. Hezkuntza bisitaldia lau ordukoa izaten da eta Naturaren Interpretazio Zentrua eta oihana bisitatzen dira. Bisita baino lehen, ikasle eta irakasleek gaia landu behar izan dute ikasgelan. Bisitaren ondotik, inkesta bat betetzen dute ikasle-irakasleek.



ERREPIDEAK

# Endarlatsa eta Irun arteko errepide berria 2009rako eginen dela segurtatu dute

Nafarroako Gobernuko eta Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak bildu ziren Donostian

ttipi-ttapa

*«Endarlatsa eta Irun bitarteko N-121-A errepide berriko lanak 2007 urte hasieran hasiko dira eta 2009ko martxorako akautuko, lehendik jarritako epeak betetzen ari direlakoz».* Horrela jakinarazi zuten Gipuzkoako Diputazioko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariek, Donostian martxoaren 9an egindako bileraren ondotik. Javier Zuriarrain, Bide Azpiegituretako Gipuzkoako diputatua eta Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilaria bildu ziren Donostian, duela urtebete eskas bi administrazioek errepidea egiteko Etxalarren sinatutako hitzarmena nola gauzatzen ari den aztertzeko. Dena programatutakoaren arabera gauzatzen ari dela azpimarratu zuten. Endarlatsako zubi berriari buruz solas politak eskaini zituzten Zuriarrain eta Mirandak. Bidasoa erreka bere balio ekologikoarengatik babestua dagoenez, ez du pilarerik izanen, eta polita eta arina izanen omen da. Seguruenik Javier Manterola ingeniari nafarrak eraikiko du eta bi lurraldeen arteko lotura denez *«erranahi berezia»* eman nahi diote. Gipuzkoak eta Nafarroak erdibana ordainduko dute zubi berria.

Berrizaun eta Bera arteko tartea oraindik behin betikoz onartu gabe segitzen du, lehenik Bera-Irun tartea moldatu eta horren arabera eginen delako. Kontseilari nafarra martxoaren 17an bildu zen eskualdeko alkateekin gai honi buruz solasteko. Mirandaren ustez, *«ez du zentzurik Belateko ardatzaren zati gehiago moldatzea, ibilgailu pilaketa handiena sortzen duen zati nagusia, Bera eta Irun artekoa, aitzinetik ez bada moldatu».*




ARTXIBOA

**Alvaro Miranda, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabideetako kontseilaria eskualdeko alkateekin bildu zen martxoaren 17an.**

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

GOIZUETA

# Frontoia berrituko du Udalak pilotariek herria zapelez estaltzen duten bitartean

221.786 euroko obra eginen da pilotalekua moldatzen




**Harrera ederra egin zitzaion Korrikari martxoaren 12ko arratsean. Dirutza polita ere jaso du AEKk Goizuetan, bere alde antolatutako afariek utzitako etekinez gain, 24 kilometro saldu baitziren herrian.**

Esteban AROTZENA

Lehengo ostiralean udalbatzak hartutako akordioaren arabera, Lubineko frontoia konponduko dute ondorengo hilabetetan, 221.786 euroko aurrekontuko obrarekin.

Zura eta galbanizatutako altzairuzko txapaz estaliko da. Zola ere, kantxa alegia, berria izanen du, kuarzoz aberastutako ormigoizkoa. Frontisa eta ezker pareta berriz, berdez pintatuko dira egin beharreko konponketak egindakoan. Dutxak eta komuna gaur egun komuna bakarrik dagoen lekuan eginen dira. Gainerako guztia, kanpo eta barrena, dotore apaintzeko asmoa da, eta orain irekita dauden erreboteko leihoetan kristala paratuko da.

Apirilaren bukaerarako aterako du Udalak lehiaketara obra hau. Hartzen duenak sei hilabeteko epea izanen du lanak bukatzeko. Iruñak dirulaguntza ukatu duenez, herriak hartu beharko du bere gain aipatutako aurrekontu osoa.

Frontoia berritzeko kontuekin dabiltzan bitartean, herriko pilotariak zapelak lortzen ari dira nonahi. Azkeneko hilabetetakoak bakarrik aipatuz eta denok gogoan edukiko duten Aimarrek lortutakoaz gain, Laudio eta Lezamako torneoak eskuratu ditu Jon Apezetxeak eta Mungiakoa Mikel Eskuderok. Lehengo larunbatean ere, beste zapel bat herriratuko zen, Jon Apezetxea eta Jon Narbartek jokatzen baitzuten Euskal Herriko jubenil onenak bildu dituen Antiguoko lau terdiko txapelketaren finala. Aipagarria, baita ere, larunbat honetan, hilak 2, Umore Onak eta Huartek Urnietan jokatuko duten Berria txapelketaren finalerdia.

ARESO

## Udal langileak egun osoko lanaldia izango du apiriletik aurrera

Iragarki taula berria bus geltokian jarri da

Juana Mari SAIZAR

Udal langileari lanaldi luzapena egin zaio eta apirilaren hasieratik jornada osokoa izango da. Zerbitzu berriak ere martxan jarri ditu udalak, hilerriko lurperatzea, hau da, hilobiak ireki eta ixteko lanak, eta hemen ez dira sartzen panteoien egokitzeak. Zerbitzu hau behar duenak alkatearekin edo udal langilearekin harremanetan jarri beharko du.



**Korrika txikia martxoak 11n ospatu zuten eskolako umeek, handienak kilometroa egin zuten korrika ume txikienek lekukoa hartu zuten. Gero txokolatada izan zuten pake-toki elkartean. Udalak 356€ eman ditu korrikari laguntzeko.**

ARANO

## Ontzorrotz eta Etzabalko pistak hobetuko dira

Eskaintzak apirilaren 4rako aurkeztu behar dira Udaletxean

Kontxi KLABER

Otsailaren 24an egindako udal bilkuran Ontzorrotz eta Etzabal inguruetako pistak hobetzeko eta irekitzeko obraren kontratazioa hastea erabaki zen. Eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 4an itxiko da. Obraren proiektua eta baldintzak edonork kontsultatzen ahal ditu udal idazkaritzan.

### Korrika

Martxoaren 12ko gaueko 12:30ak aldera sartu zen Nafarroako lurraldean Korrika. Aranok lau kilometro erosi zituen Kaxetatik aurrera. Aurrez, elkarteko afari meriendan bildu zen jendea, txalaparta soinu artean eta aurreko Korrikako Hernani-Goizueta tarteko tramoaren bideoa ikusi zuten.

LEITZA

# Harrobiari buruzko herri galdeketa egiteko baimena eman dute

Espainiako Ministroen Kontseiluak eman zuen martxoaren 11n

ttipi-ttapa

Albiñoko harrobiari buruzko herri galdeketa egitea baimendu zuen martxoaren 11n Espainiako Ministroen Kontseiluak. Horrela, 442 leitzarrek beren sinadurekin sustatu eta joan den urteko abuztuan Udalak egindako baimen eskaerak baiezkoa jaso du eta, tramite batzuk bete ondotik, herri kontsulta eginen da.

2003ko azaroan CONVIAL enpresak berriz ere Albiñon harrobia egiteko eskaera egin zuela jakinda, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak herri kontsultei Foru Legea oinarri hartuta prozedurari hasiera eman zion, sinadura bilketarekin. 2004ko ekainean aurkeztu zituzten Udaletxean. Geroztik Udalak egin zuen eskaeraren tramitazioa, udal batzarrean akordioa hartu eta galdera ere zein izanen zen aukeratu zuten: "Leitzan harrobirik bai ala ez?". Espainiako Ministroen




ARTXIBOKOA

**2003ko azaroan Convial enpresak berriro ere harrobiaren gaia mahai gainean jarri nahi duela adierazi zuen udaletxean. Honen aurrean, herritar batzuk bildu ziren, herri galdeketa bultzatzeko.**

Kontseiluaren erantzunak, lege-tramite guztiak bete direla baieztatu du: *«Leitzako Udalaren eskaerak legeak ezartzen dituen baldintza guziak bete ditu: udalbatzaren erabateko gehiengoz egindako eskaera izatea, galdegaia herriaren eskumenekoa izatea eta bertako biztanleentzat garrantzi berezikoa izatea»*.

Orain, baimen hau Nafarroako presidenteari ailegatuko zaio, Sanzek bost eguneko epean bidali beharko dio Leitzako alkateari eta beste 5 egun baino lehen, alkateari dagokio harrobien inguruko herri kontsultaren deialdia egitea, bozketaren eguna noiz izango den eta informazio kanpainak zenbat iraungo duen jakinaraziz. Bozketa egunari dagokionez, deialdia egin eta 30-45 egunen barrenean, igande edo jaiegun batez egin behar da. Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak baikortasunez hartu du Madrileko baimena eta herriko talde politiko guziekin hitz egiteko eta proposamena helarazteko asmoa azaldu du.

FLASH

### *Leitzako I. Ipuin lehiaketa abian*

Leitzako Kultur Taldeak, 16 urtetik gorakoentzat ipuin lehiaketa antolatu du lehen aldiz. Lanak apirilaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira Maimur edo Astiz liburudendetan.

### *UPNko taldea kontseilu irekien aurka*

UPNko udal taldeak 2004ko uztailean sortu ziren kontseilu irekietan parte ez hartzea erabaki du *«Larrainen partehartzeak herriaren errealitate demokratikoa»* aldatzen duelako. UPNren ustez, EA eta Aralarek sortutako kontseilu hauen bitartez, *«herriaren gobernuan eta erabakiak hartzen uzten zaio legez kanpo dagoen kandidaturari»*. Alkateak hori gezurtatu eta kontseiluak *«udala herritarrei irekitzeko»* modua dela aipatu du.

### *Ikurriña jarri eta kendu*

Aurreko alean aipatu genuen ildotik, ikurriña Udaletxeko balkoitik kentzeko erabakiak zeresan ugari sortzen ari da. Horren inguruko udal plenoak eta herri batzarrak egin dira eta alkateak ere idatzia kaleratu du, erabakia hartzeko arrazoiak emanez.












# e g i t a r a u a

martxoak **24** osteguna

"LUR TABERNA"

00:00

martxoak **25** ostirala

"DISKOTEKA"

00:00

martxoak **26** larunbata

# DEF CON DOS

00:00 12€ + kontsumizioa

apirilak **01** ostirala

"BERTSO MUSIKALDIA" 00:00

apirilak **02** larunbata



# JOSEINA ETXEBERRIA

00:00 8€ + kontsumizioa

apirilak **08** ostirala

"EL SEÑOR RAMON"

00:00

apirilak **09** larunbata

"DISKOTEKA"

00:00

Lur diskoteka

2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€+kontsumizioa
Entrada libre hasta las 2:00. En adelante 8€+consumición

Ostiralero sarrera dohainik
Viernes entrada libre

E l i z o n d o ( N a f a r r o a )

BAZTAN

# Baztango Etxeen Telefono Gida karrikaratu du Doike elkarteak

Etxeen izenak dira gidaren sarbide edo bilatzeko modu nagusia

ttipi-ttapa

Martxoaren 15ean aurkeztu zuten Baztan Balleko Etxean Doike Eskuara Taldeak argitaratu duen Baztango Etxeen Telefono Gida. Alazne Sansiñena, Doike elkarteko taldeburuak eman zuen liburuaren xehetasunen berri eta berekin batera, Josu Prim eta Julen Mitxeltorena Doikeko ordezkariak, Iñigo Iturralde Baztango alkateordea eta Paula Kasares euskara teknikaria izan ziren aurkezpen ekitaldian.



Argazkia: Edurne Zubieta

**Alazne Sansiñena, Dpoike elkarteko taldeburuak aipatutakoaren arabera, ia hiru mila zenbaki biltzen ditu Baztango Etxeen Telefono Gidak.**

Baztango etxeen telefono gidak ia hiru mila telefono biltzen ditu. Baztango populazio entitatateen argazkiez lagunduta dago eta haien planoez hornitua ere. Berrikuntza gisara, etxeen izenak dira gidaren sarbide edo bilatzeko modu nagusia. «*Oikonimoen edo etxeen izenen azterketa filologikoa ere, hau da, jatorrizko izena zein den eta oraingo arau estandarrak kontuan harturik aholkatzen den idazkera, egin dugu*».

Doikek argitaratutako gida honek, Baztango etxe izenen erabilera soziala areagotzea du helburu, «*horien araberako kontsulta usuko gida erabilgarri baten argitaratzearen bidez. Baztango etxe-izenek Nafarroako eta Baztango ondare kultural gisa duten balioaz baztandarrak jabearaztea eta Baztango oikonimoen jatorria eta orango idazketa estandarra hedatzea*». Gidaren mila ale argitaratu dira. Baztanen banatuko dira, lehendabizi Doikekideen artean eta gero eskatzen duen edozein baztandarri emanen dio Doikek, baina ez da salduko. Balleko liburudendetan hartu ahal izanen da, baita Balleko Etxean ere.

Proiektu honi diruz eta bertzelako ekarpenen bidez lagundu diotenak eskertu nahi izan zituzten aurkezpenean.

## Baztan Ikastolak gela berria

Baztan Ikastolako Lehen Hezkuntzako aretoan kokatutako erabilpen anitzetako gela inauguratu zen martxoaren 20an. Eremu berriak 240 metro koadro ditu eta irakaskuntza eta aisialdi ekintzetarako erabiliko da. Areto berreraikitze honekin, duela hilabete batzuk Baztan Ikastolak hasitako eraikuntza lanak akitutzat eman dira. Inaugurazio ekitaldian, lehenik harrera eta ongietorria egin zitzaien irakasle, guraso, ikasle, ikasle ohi, bertako agintari eta komunikabideei. Gero, Baztan Ikastolaren historia, diapositiben bidez aurkeztu zen. Apezaren bedeinkazioaren ondotik, ikastolako ikasleek aurreskua dantzatu zuten. Jon Barberena eta Bittor Elizagoien bertsolarien saioaren ondotik, Baztan ikastolako haurrek dantzak eta mutildantzak eskaini zituzten. Amaiurko Gaztelu Abesbatzaren emanaldiaren ondotik, hamaiketakoa eskaini zen.




ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
948 581 807
948 581 853



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

BAZTAN

# Enpresa Simulatuen Azokan parte hartu du Elizondoko Institutuak

## Hamahiru ikasle eta bi irakasle izan dira Lleidako Ferian

ttipi-ttapa

Elizondoko Institutuko hamahiru ikaslek eta bi irakaslek Lleidan egindako Simulatutako Enpren Nazioarteko V. Azokan hartu dute parte, Baztan Likoreak izeneko enpresa simulatuarekin. Enpresa honetako katalogoarekin batera, Elizondoko Malkorra txokolateak aurkeztu dituzte Katalunian, harrera onarekin.

Elizondoko Institutuak 2000. urtean jarri zuen lanean Baztan Likoreak Enpresa Simulatua eta Nafarroan aitzindari izan zen ikasketa-sistema hau erabiltzen. Ikasleek enpresaren egiazko funtzionamendua ikasten dute, enpresaren arlo ezberdinetan lan egiten baitute ikasturtean.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Kintoako aprobetxamenduarengatik 67.120 euroko txekea hartu dute Baztan eta Erroko Udalek**

**Javier Etxarte, Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 67.120 euroko txekea eman zien martxoaren 14an Baztan eta Erroko alkateei. Kopuru hori, 2004an Kintoako mugalarreak aprobetxatzeagatik Baigorrik ordaindu duena da. 1856an Espainiak eta Frantziak sinatutako tratatuaren arabera, Baigorriko abeltzainek Kintoako larreak aprobetxatzeko eskubidea dute, urteko kuota baten ordainez. Etxarte kontseilariaren bulegoan, Virginia Aleman Baztango alkate eta Kintoako mankomunitateko lehendakaria eta Enrique Garralda Erroko alkatea izan ziren.**

FLASH

### *Arraioz-Bridgwater harremana*

Arraiozko mendietan agertu zen globoak harreman polita sortarazi du Baztango herriaren eta Ingalaterrako Bridgwater hiriaren artean. Martxo hasieran Little Steps (Urrats ttikiak) ikastetxetik eskutitza ailegatu zen Arraiozko eskolara, hauen erantzuna eskertuz eta elkarrekin harremanean hasteko borondatea azalduz.

### *Uraren tasa berriak*

Baztango Udalak uraren tarifa berriak jarri ditu. Etxerako erabiltzen den urarengatik, metro kubikoa 0,14 euro kobratuko da eta ureztapenerako edo industriarako erabiltzen denarengatik, 0,19 euro. Zerbitzuaren mantenimenduarengatik urteko 14,51 euro ordainduko dira eta hornidurarako ur-hartzea egiteagatik 72,52 euro. Tarifak berritzen ez diren bitartean, urtero KPI edo IPC delakoa gehituko zaie prezio hauei.

### *Indulto eskaria Gartzaingo hiru bizilagunentzat*

Manuel Ariztia, Feliciano Etxarte eta Matias Etxarte gartzaindarren indultoa eskatzeko sinadura bilketa egiten ari da Baztanen. 1994an Jose Maioraren heriotzarekin zerikusia zutelakoan kartzeleratu zituzten hiruak.


















SENPERE

# Hotzak eta gauak ez ditu euskaltzaleak beldurtu eta mundu bat bildu da Korrikan

## Mayi Trecu, Mattin bertsolariaren alaargunaren boza ez dugu gehiago entzunen "Gure Irratian"

**Franck DOLOSOR**

Martxoaren 12ko tenperatura apalek ez dituzte euskaltzaleak lotsatu herritar ainitzek parte hartu baitute hamalaugarren Korrikan. Aspaldiko partez, gaueko oren ttikietan pastu zen AEKren aldeko lasterkaldia. Gaueko laurak alderat hiru gradu zeroz azpitik ziren Senperen bainan hori ez da aitzakia izan Korrikan ez parte hartzeko. Egunaz bezainbat jende bildu da kasik aurtengo edizioan. Herriko etxeko ordezkariek, Zirikolatz dantza taldeko kideek, eta Herri Urratseko arduradunek ereman zuten lekukoa bertzeak bertze. AEKk bilan baikorra egin du Korrikaz parte hartze handia izan baita Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan. Gainerat, jende berria bildu da aurten, berriki estrenatu den Euskararen Erakunde publikoko ordezkariak bezala.

### *Mayi Trecu, Mattinen alarguna hil da*

Izar berri bat piztu da eskual zeruan Mayi Trecu Olhandeguy martxoaren 13an zendu baitzen 77 urterekin. Mayi, senpertarra zen sortzez. Emazte alegera hori ezaguna zen Mattin Trecu Ahetzeko bertsulariaren alarguna baitzen. Laboraria eta bertsozale haundia izateaz gain, hogoi urtez berriketaria izan zen Gure Irratian. "Mattin nere gizona" liburua ere izkiriatu zuen 1982an. Bertsolaritzaren garai oparoenak ezagutu ditu Mayi zenak Mattin senarrak Xalbador, Xanpun, Uztapide, Basarri eta Lazkao Txikirekin kantatzen zuelarik.



ARGAZKIA: ARGIA

**Mayi Trecuren ahotsa ezagun egin zen, hogoi urtez berriketari izan baitzen Gure Irratian.**







ARGAZKIAK: LE JOURNAL DE PAYS BASQUE

**Korrika laisterka egiten da normalki, baina izan zen zaldi gainean ere egin zuena. Azkenean, kontua euskarari sustengua ematea da eta horixe egin zuten hainba teta hainbat senpertarrek.**




Ahatekietan adituak eta arituak

Martiko S.A. Pol. Zalain, s/n. 31780 Bera. Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etxabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karneten berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tlfnoa eta Faxa: [illegible] - ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3 km
948 599 131

ttipi ttapa
☎ (0034) 948635458

SARA

# Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa bururatu da

Goi mailan txapeldun izan dira Claude eta Evelyne Etchegarai



Artxiboa

**Herriko Etxeko Edantegian urte aunitz dituzte mus txapelketak antolatzen. Argazkian, joan den urteko irabazleak Maixan eta Veroniquerekin.**

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Martxoaren 12an iragan dira mus lehiaketaren finalak eta hona hemen hiru maileetako irabazleen zerrenda. Goi mailan, txapeldun izan dira Claude eta Evelyne Etchegaray, Serge Bats eta Jean Philippe Amorenaren kontra. Hirugarrenak Saski eta Thomas Lafitte izan dira, laugarrenak Xavier Tapia eta Bruno Martin direlarik. Bigarren mailan irabazle izan dira Christine Lissayou eta Céline Gurudi. Hirugarren mailan, Frédéric Barreneche eta Mickael Vella izan dira hoberenak. Ondotik mus zaleek bildotsa bazkaltzeko aukera izan dute egun berean, baita Jose Anjel Elizondo musikaren entzuteko parada ere, hori dena giro eta umore onean iraganez.

### Kirolak

Esku baloian, Sarako urtxintxeko talde gehienek irabazi dute martxoaren 12ko asteburuan, hala nola: neska handienek irabazi dute 27-21 Baionan. 11 eta 13 urte azpiko neskek irabazi egin dute ere. Bainan 15 urteko azpikoek galdu dute.

Errugbian, sasoin ezin hobean ari zauzkigu gure mutilak, lehen postuan baitira. Mendikotako jokalariak garaitu dituzte (26-11), baita Arrangoitzekoak ere martxoaren 13an (18-8).

Pasakan, Mattin Arrietak eta Andoni Allik irabazi dute Hendaian Frantziako txapelketaren finala, Hazparneko ekiparen kontra. Biba zuek eta segi hola!

### Selaru hustea

Sarako eskola publikoak antolatzen du selaru huste bat apirilaren 10ean igandearekin plazan egun osoan, eta denbora txarra baldin bada polikiroldegian segurtatua izanen da.

### Terexari elkartasuna

Jakinarazten dizuegu martxoaren 3an Terexa Telletxea Paueko presondegira eraman dutela , diotenez zortzi hilabeterentzat. Gure sustengua erakutsi nahi diegu baita ere bere familiari agur beroenak.

Egon azkar!

Helbidea:

*Pernaute Telletxea Terexa; Maison d'Arret de Pau; 14 bis rue Viard; 64000 Pau.*

### Dantza

Zazpiak Bat dantza taldeak afaria antolatzen du Omordian apirilaren 2an. Izenak emaiten ahal dira deituz zenbaki honetara: 06.86.68.60.57.

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Bilbo aldea ezagutu dute eskolako neska-mutikoek

Gorlizeko aterpetxean izan ziren hiru egunez




### Sorginen historia berriz ere liburuan

**Zugarramurdiko sorginen kontua herri huntako historia ez ezaguna bat zela-eta, duela 17 urte gertakari haiek nola izan ziren kontatzen zituen liburuxka bat argitaratu zen. Orain liburuxka hura berrituta, datu gehiagorekin eta bertze argazkiekin berriz argitaratu da. Aste Saindurako salgai egonen da, bainan herritarrek nahi izanez gero, dohainik hartzen ahal izanen dute "Marixan" ostatuan, martxoa finitu arte.**

Margari eta Koro

Martxoaren 9, 10 eta 11n gure herrietako haur koxkorrenek Bilbo aldea ezagutzeko aukera izan zuten. Urtero eskolatik antolatzen den kanpaldia dela-eta, 13 lagun Gorlizeko aterpetxera joan ziren, eta handik irteera interesgarriak egin zituzten: Gugenheim bisitatzera, San Mames futbol zelaia ezagutzera, zineman ere egon ziren, eta seguraski gustukoena izan zutena: metroan ibili ziren.

### Korrika

Tenorea ez zen egokiena izan, bainan hala ere arras korrika animatua kurritzen ahal izan ginuen gure bazter huntan. Larunbateko goizeko 5etan, Saratik etortzen zen lekukoa Zugarramurdiko gazteek hartu zuten eta muga gurutzatu ondotik "Xareta" ostatukoei pasatu zien, hauek Urdazubiko gazteei, eta gazteek Andres Alkateari Herriko Etxearen zatia egiteko pasatu zien. Hortik aintzina Otsondo mendatea igatea tokatzen zen eta hainbatek hantxe segitu zuten malda goiti, sasoin ederra erakutsiz.

Bezperan eskoletako haurrek ere beren korrika txiki egina zuten: herrian zehar "kilometroak" paratu zituzten taldezka kurritzeko, gero Azketan idazki bat irakurri zen eta finitzeko, denok batera lasterka eskolara jautsi ziren.

AZKAIN

# 7 kilometro egin ditu Korrikak herrian

## Aratzen sustenguz bazkaria egin zen ihauterietako asteburuan




ARGAZKIA: ANGELA

**Aratzen aldeko bazkaria**

**Angela eta Xamo**

Martxoaren 12ko goizeko 3ak aldean, Korrikaren musika entzuten ahal zen herriko karriketan. Donibane Ziburutik heldu zenez, lehen lekukoa Elgarrekin eta Azkaindarrak Bat elkarteek hartu dute Xantakon, 300garren kilometroa egiteko. Honen ondotik, Turismo bulegoa Bollendorf eta "Amicale des peintres"-ek lekukoa hartu dute 2garren kilometroa egiteko; gero Martintxo eta Korneliok, Ikastola eta eskoletako burasoek, Herriko Etxeak, Besta Komitea eta Gau eskolak, eta bukatzeko, Altxa lili, Gemuku eta Orduan elkarteek. Orotara, Korrikak 7 kilometro egin ditu Azkainen.

Aurten, nola Korrika gauez pasatzen zen, gaualdia antolatua izan da. Gau eskolako ikasleek Korrika jauntziekin moda desfilea egin dute. Ondotik, David Gracy-k Patagoniari buruzko diaporama eman du. Gaua bururatzeko, Martintxo taldeak, bere musikariekin gaua alaitu dute.

Gemuku elkarteak ostatu bat bazuen eta Besta komiteak taloak saltzen zituen. Benefizio osoa Korrikarentzat izan da. Eta azkenean Korrika agertu da. Jende multxo bat hurbildu da, gauaz izanki ere, parte hartzeko; adin guzietatik, haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak ikusten ahal zen Korrika Korrika !

### Aratzen alde

Ihauteriko asteburuan, Orduan! elkarteak bazkaria antolatu zuen Kiroletako salan, Aratz presoaren sustenguz. Ihauterien garaia zenez, joko olinpikoak lemarekin 50 bat pertsona ziren mozorrotuak. Aratz txapeoan egon da 10 egunez, otsailaren 23tik martxoaren 4a arte. Euskal preso politikoek "txapeo *borroka*" eramaiten dute sakobanaketa isolamendua eta heien egoera salatzeko. Hortik goiti, presondegiak erabaki du zigorrak emaitea. Momenturako, 10 pertsona bakarrik joaten ahalko da Aratz ikustera, bainan xehetasunak eskas dira.



ARGAZKIA: ANGELA

**Ihauteriak: goizeko ibilaldia.**

### Ihauteriak

Duela bi urte eta gan den urtean bezala, jendea gero eta guttiago hurbiltzen da herriko ihauterietan. Goizeko ibilaldian, 20 bat gaztek hartzaren iratzartzea segitu zuen herriko auzoetan, eta arratsaldeko desfileak ez zuen bere usaiako arrakasta izan. Beharbada mozorro berri bat urtero asmatzeak aspertzen dio jendeari. Batzuek ere ez dituzte nahi telebistan pasatzen diren errugbi partidak huts egin... Zernahi gisaz, etorri direnek momentu goxo bat pasatu dute Pantzar hartza eta musikarien konpainiarekin. Aurtengo besta Gemuku taldeak antolatutako gaualdi batekin bukatu da, Bil tokin.











# EZKONTZAK

**Federico Martin Cuesta** eta **Yamile Bonne Salazar**, Irungoa eta La Habana (Kubakoa), Beran, martxoaren 11n.
**David Lozano Perez** eta **Maria Jesus Fernandez Diez**, Tutera eta Irungoa, Beran, martxoaren 12an.
**Agustin Burlada Etxebeste** eta **Maria Raquel Migeltorena Maia**, Arantza eta Lesakakoa, martxoaren 5ean.
**Joaquin Mari Barrio** eta Maria **Beatriz Astrain Ayerra**, Barañain eta Iruñekoa, Almandozen, otsailaren 19an.
**Andres Barberena Ibarra** eta **Maria Asuncion Opoka Ugalde**, Elizondokoak, otsailaren 26an.



# SORTZEAK

**Elisabeth Lacambra Galain**, Doneztebekoa, otsailaren 23an.
**Ugutz Etxeberria Irigoien**, Doneztebekoa, otsailaren 24an.
**Lucia Sanz Fuejo**, Doneztebekoa, otsailaren 25ean.
**Haizea Sanz Fuejo**, Doneztebekoa, otsailaren 25ean.
**Alaitz Indart Martin**, Doneztebekoa, otsailaren 26an.
**Eneko Zelaieta Lazkano**, Berakoa, martxoaren 7an.
**Ibai Lopez Garcia**, Lesakakoa, otsailaren 28an.
**Aitor Zubieta Moratinos**, Lesakakoa, martxoaren 8an.
**Aitor Agesta Mendiburu**, Zubietakoa, otsailaren 25ean.
**Gexan Arburua**, Sarakoa, martxoaren 12an.
**Julen Trantxo Azkarate**, Elizondokoa, martxoaren 10ean.
**Garazi Garxia Mendiberri**, Elizondokoa, otsailaren 28an.
**Maddi Juanikotena Larralde**, Arizkungoa, martxoaren 10ean.
**Olaia Meoki Muñoz**, Elizondokoa, martxoaren 1ean.
**Malen Beica Pagazaurtundua**, Erratzukoa, martxoaren 3an.
**Juan David Caballero Varona**, Elizondokoa, otsailaren 26an.



# HERIOTZAK

**Jose Iturria Arotzena**, Goizuetakoa, martxoaren 11n, 69 urte.
**Miguel Barandiaran Labaien**, Aresokoa, martxoaren 2an, 87 urte.
**Leon Fagoaga Zozaia**, Arantzakoa, martxoaren 5ean, 85 urte.
**Carmen Extremera Rodriguez**, Leitzakoa, martxoaren 6an, 57 urte.
**Josefina Landart Aldako**, Beran, martxoaren 6an, 94 urte.
**Maria Luisa Mutuberria Baleztena**, Bertiz-Oieregikoa, martxoaren 7an, 84 urte.
**Donatila Bujanda garcia**, Elizondon, martxoaren 9an, 88 urte.
**Luisa Alkasena Elizegi**, Elbetekoa, martxoaren 12an, 94 urte.
**Antoinette Etxarte**, Sarrakoa, 93 urte.
**Jean Pierre Saint Martin**, Sarakoa, otsailaren 26an.


Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar • Tfnoa: 948 63 54 58




**Joseba Andoni**
**URDANITZ ETXEBERRIA**
1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

**III. URTEMUGA**

*Udaberriak bizia ekarriz*
*Zure askatasun modua gogoratzen du*
*Zure ametsak buruan izanik*
*Zure indarra gurea egiten dugu.*

**Gurasoak eta senideak**

## PILOTA




Argazkia: ONDIKOL

Txapelketako azken partidetara ailegatu ziren pilotariak, Laxoa Elkarteko kideekin.

# Urtasun-Etxenike-Ballarenak irabazi dute Paxaka txapelketa

Finalean 9-5 irabazi zieten Elizaintzin eta Urrutia anaiei

A.A.

Martxoaren 13an jokatu zen Iruritako Aranabia pilota plazan Baztan-Errekako seigarren paxaka txapelketaren finala. Aurtengoan, jakina zen, Iruritan bertan geldit実uko zela txapela, finalera ailegatu ziren bi hirukoteak herrikoak baitziren. Alde batetik, Urtasun, Etxenike eta Ballarena aritu ziren, hau elizondarra, eta bertzetik Elizaintzin eta Urrutia anaiak. Azken hauek lehen ere txapela irabaziak ziren, 2001. urtean hain zuzen. Gainera, lehendabiziko jokua beraiek egin zuten eta bazirudien lanak emanen zizkietela aurtengo faborito nagusiei. Baina Urtasun, Etxenike eta Ballarena pixkanaka gailentzen joan ziren eta azkenean, 9-5 irabazi ondotik, lehen aldiz txapela jantzi zuten. Ez zen hor akautu iruritarren besta. Finalaren aitzinetik jokatu zen bigarren posturako norgehiagoka eta honetan, 2002. urtean txapeldun izan ziren Zabaleta, Santxotena eta Ripak 9 eta 5 irabazi zion azken bi urteetan, 2003an eta 2004an txapeldun izan ziren Oizko Mendiola anaiak eta Fagoagari.



Txapelketa ederra osatu dute Urtasun, Etxenike eta Ballarenak.

## FLASH

### Maite Iriarte narbartearra Nafarroako txapeldun

Martxoaren 5ean jokatu ziren Mendillorrin Nafarroako trinkete txapelketetako finalak. Nesken paleta-goma txapelketan, Doneztebeko Erreka elkarteko ordezkariak suertatu ziren txapeldun. Iruñeko Leundak eta Maite Iriarte narbartearrak 30 eta 16 irabazi zieten Lizarrako Calanda eta Okarizeri.

### Iñaki Eskudero eratsundarra azpitxapeldun

Esku pilotan, bigarren mailako eskuz binakako txapelketa antolatu du aurten Asegarcek. Iñaki Eskudero atzelari eratsundarra Leitzarekin aritu da eta Labriten martxoaren 12an jokatu finalera ailegatu zen. Finalean, ordea, 13-22 galdu zuten Mendizabal eta Beginoren kontra.

### Baztan Rugby Taldearen ametsa akitu da

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Baztan Rugby Taldeak Lehen Maila Nazionalean liga bikaina egin du eta bigarren sailkatu ondotik, Ohorezko Mailara igotzeko promozio fasea jokatu du. Ez du suerte handirik izan Baztango taldeak eta lehendabiziko kanporaketan, Bartzelonako Sant Cugat taldeak kanporatu du. Lekarozen martxoaren 6an jokatutako joaneko partidan, ongi aritu zen BRT, baina 25-26 galdu zuen azkenean. Bartzelonan martxoaren 12an, 0-3 aitzindu ziren baztandarrak, baina kataluniarrek buelta eman eta 38-10 irabazi zuten.

PILOTA

# Jaurena eta Berho paleta-goman Nafarroako bigarren mailako txapeldun

## Lehen mailan Nafarroako azpitxapeldun izan ziren Antxordoki eta Txoperena

A.A.

Martxoaren 6an jokatu ziren Iruñean Nafarroako paleta-goma txapelketako finalak, lehen eta bigarren mailan. Bi finaletan eskualdeko ordezkariak izan ziren, Lesakako Batzoki elkarteak antolatutako txapelketatik sailkatutako pilotariak hain zuzen.

Bigarren mailan txapeldun suertatu ziren Urdazubiko Patxi Jaurena eta Oronoz-Mugairiko Carmelo Berho, 35 eta 31 irabazi baitzieten finalean Iruñeko Etxarte eta Calvori. Partida zaila irabaztea lortu zuten Jaurena eta Berhok, hamar tantuz gibeletik izan baitziren. 22-22 eta 23-23 berdindu ondotik, 29-31 galtzen ere joan ziren, baina azkeneko sei tantuak beraien alde erori eta txapela jantzi zuten. Bikote berezia osatzen dute, urdazubiarrak 22 urte bertzerik ez eta Oronozkoak 43 baititu. Berhok urteak daramazki paleta goman aritzen eta gan den urtean txapelketa honetako finalerdira ailegatu zen Bittor Txoperena igantziarrarekin. Jaurena, aldiz, paleta goman hasi berria da, oraintsu arte eskuz aritzen baitzen Txarutarekin. Lesakako txapelketan azpitxapeldun izan ziren bigarren mailan. Berhok aipatu digunez, *«hagitz partida kaxkarra egin genuen»*. Orai, berriz, Nafarroako txapeldun izan dira.



Patxi Jaurena eta Carmelo Berho, Lesakako txapelketako sari banaketan.

Lehen mailako finalean aldiz, Guillermo Antxordoki eta Bittor Txoperena igantziarrek osatutako bikoteak aisa galdu zuen Monreal eta Olaberriren kontra, 16 eta 35. Lehendik ere faborito ziren Monreal eta Olaberri, normalki txapelketetan Nafarroa ordezkatzen duen bikotea osatzen baitute, baina finalean Antxordoki eta Txoperenak txapelketako partidarik kaxkarrena jokatu zuten. Finalerdian, Lesakatik sailkatutako bertze bikotea kanporatu zuten igantziarrek, Santesteban irundarrak eta teiletxea lesakarrak osatutakoa.

# Errekako eskuz binakako hirugarren txapelketa jokoan da

## Afizionatu mailako final laurdenak apirilaren 6an

Doneztebeko Erreka elkarteko pilota sailak Malerrekako eskuz binakako hirugarren pilota txapelketari ekin dio.

Aipatzekoa da, afizionatu mailako Nafarroako pilotari hobexkoenak ari direla txapelketa honetan. A multzoan, Borda-Indurain, Garziandia-Aldaz, Urtasun-Oroz eta Lazkoz-Mariñelarena bikoteak ari dira. B multzoan, Urdaniz-Antxo, Olazabal-Betelu, Gorriti-Irañeta, Goizueta-Apezetxea eta Osinaga-Lazkoz. C multzoan, retegi-Arraztoa, Razkin-Tabar, Onsalo-Elizalde, Aranburu-Etxegarai eta Pikabea Mitxelena eta D multzoan, Altzugarai-Eraso, Etxeberria-Otxotorena, Tainta-Azanza, Ongay-Barbajero eta Etxepare-Rekalde.

Lehenbiziko faseko azken jardunaldia martxoaren 30ean jokatuko da eta multzo bakoitzeko bi lehendabiziko bikoteek final laurdenak jokatuko dituzte apirilaren 6an Sunbillako pilotalekuan. Finalerdiak apirilaren 13an jokatuko dira pilotaleku berean eta finalaren eguna ez dago zehaztua oraindik, hau idazterakoan.

Bertze aldetik, benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubenil mailan ere hastekoak dira txapelketa honetan. Helduek bezala, Doneztebe eta Sunbillako pilotalekuetan jokatuko dira partidak, kadete eta jubenil mailakoek asteazkenetan eta benjamin, alebin eta infantilek larunbatetan.

# AGENDA egunez egun

## ZINEMA

### ELIZONDO

**Martxoaren 24an** «Los lunes al sol» langabeziari buruzko filmea ikusgai Gaztetxean, 21:00etan. Sarrera debalde.
**Martxoaren 31n** Iruñeko Gaztetxearen bideoa ikusgai eta ondotik eztabaida Gaztetxean, 21:00etan.

## KONTZERTUAK

### BERA

**Martxoaren 24an** DJ Dave Jones Londresko txil+house musika Ikuilu ostatuan, 22:00etan. Argixuren argazki erakusketa eta koktel bereziak ere izanen dira.

### ELIZONDO

**Martxoaren 26an** DEF CON DOS taldea Lur diskotekan, 0:00etan.
**Apirilaren 1ean** bertso musikaldia Lur diskotekan 0:00etan.
**Apirilaren 2an** Joseina Etxeberria Lur diskotekan, 0:00etan.

## IKASTAROAK

### ELIZONDO

**Martxoaren 24tik 27 artio** piano master class ikastaroa antolatu du FIDAH erakundeak Baztan Balleko Udalaren laguntzaz. Arizkunenea Kultur Etxean.

## SOLASALDIAK

### LESAKA

**Apirilaren 1ean** Xabier Saralegi lesakarra Spantik mendira espedizioari buruz arituko da Arrano Elkartean 20:00etan.
**Apirilaren 15ean** Mattin Etxabide lesakarra "Kuban esperientzi bat brigadetan" gaiari buruz arituko da solasean Arrano Elkartean 20:00etan.



## TELEBISTAKO TXOKOA



LESAKAKO LUIS OLAETXEA "MAKUKO"REKIN

# Kontrabandoaz solasean ortziraleko erreportaian

Kontrabandoari buruzko zenbat eta zenbat istorio ez ote diren aditu gure eskualdeko baserri eta etxeetan, atautxik eta amautxik kontatuak. Izan ere, denbora batean kasik familia guztietan egoten zen kontrabandistaren bat eta gaur-egun gustura kontatzen dituzte kontrabandoan ibilitakoek euren istorio eta anekdotak. Eltzetzuek emandako ikariak, paketeen karga, lasterka egintako kilometroak, mendiko bidaxketan barna galdutako puskak... eta horrela ziento bat pasadizo! Hala ere, hori guztia baino aunitzez ere gehiago izan zen Gerra Zibilaren ondoko kontrabandoa. Garai hartako gosea arintzeko modua zen; muga egiten zuten herrietako gazteek sortutako ogibide ausarta. Duela 40-50 urte goizero fabrikara joatea bezain ohikoa zen gau beltza sartu orduko etxetik abiatu eta paketea bizkarrean hartuta muga aldez bertze pasatzea. Joseba Olagarai lankidea horren guztiaren inguruan aritu da solasean Luis Olaetxea "Makuko" lesakarrarekin. Bertze aunitzek bezala, kontrabandoan urte franko pasatu zituen Olaetxeak eta ortziral honetako erreportaian hainbat pasadizo eta istorio kontatuko dizkigu. Ez galdu, albistegiaren ondotik, Ttipi-Ttapa telebistan.

## DISKAK




*«Lendakaris muertos»*
**LENDAKARIS MUERTOS**
GOR, 2005

Duela urtebete eskas sortu zen Iruñeko Lendakaris Muertos. Bere 11 kantu Internet sarean paratu eta 20.000 deskarga jaso zituen. Arrakasta hori ikusiz, Gor disketxeak fitxatu ditu eta orain 23 kantu biltzen dituen CDa argitaratu dute, izenburu berarekin. Aitor «Ibarretxe» abeslariak, Asier «Aguirre» kitarrajoleak, Txema «Garaikotxotxea» baxuak eta Potxeta «Ardanza» bateriajoleak osatzen dute Lendakaris Muertos taldea. Beraien musika punk ildotik dator eta letrei dagokienez, «eguneroko arazoetaz solasten dugu, politika, droga, sexua, gai sozialak... ironia edo umore ikuspuntu batetik». Betiko punka irauli nahi dutela diote eta hori ez da guzien gustuko, ez dute denek ulertzen. Gogoratzen dutenez, Elizondon emandako kontzertu batean «bi makulu bota zizkiguten».

## BASERRIA

Datu Iturria: Nafarroako Gobernua
(Martxoaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)



**Zerrikumea**
(19 kilo): 38,00 € (-2,00)

**Zerri gizena**
1,115 € kiloa. (=)

**Zerramak:**
0,590 € Kg/bizirik. (+0,030)



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 51 (=)
**1.koa** 3,31 (=)
**2.koa** 3,21 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,61 (=)
**1.koa** 3,44 (=)
**2.koa** 3,28 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 245,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,79/1,99
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 4,70 / 5,00
8-10 kilokoak: 3,60 / 4,10

## JAKIN BEHARREKOAK

# Zer egin behar da trafiko istripua izaten dugunean?

### Adostasunik ez bada polizia-atestatua egitea komeni da

Elurrak eta izotzak hainbat auto istripu eragiten dute errepideetan. Egoera horretan aholkurik onena ibilgailua ez hartzea da, nahitaezkoa ez bada. Ibilgailua hartu baldin baduzu eta, zoritxarrez, istripua izan baduzu, egin kasu aholku hauei:

1- Beti lasaitasuna zaindu. Zauriturik baldin bada 112ra deitu. Zaurituakoen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa hartu. Kalte materialak bertzerik ez badira, aseguru-poliza eta zirkulazio-baimena hartu eta lagun arteko partea bete. Istripuaren inguruko guztiak apuntatu, gidarien identifikazioa, ibilgailuen kokapena, aseguru-polizak... argazki-makina baldin baduzu, hartu istripuaren argazkiak.

2- Baldin badaude, istripuaren lekukoen izenak hartu, gero beraien deklarazioa beharrezkoa baldin bada ere.

3- Lagun arteko partea betetzerakoan adostasunik ez bada, edo arazoren bat sortzen baldin bada, polizia deitu atestatua idazteko eta lagun arteko partea ez sinatu. Polizia-atestatuak balio handia dauka epaitegietan.

4- Istripuaren ondotik, horren berri eman zure aseguru-etxeari. Horretarako gehienez 7 eguneko epea daukazu. Hortik aitzinera, aseguru-etxea bera izanen da istripuaren tramitazioaz arduratuko dena.

5- Ematen dizuten kalteordainarekin ados ez bazaude, edo bertze ibilgailuaren aseguru-etxeak ez badu bere errudun-tasuna onartzen, zure aseguru-polizak "defentsa juridikorako asegurua", "babes juridikoa" edo "kalteen erreklamazioa" eskaintzen dituen begiratu, zure interesak epaitegien bidetik defendatzea beharrezkoa balitz ere. Zalantzak izanez gero, edo zure erreklamazio nola tramitatu ez badakizu, zoaz zure kontsumitzaile elkartera.



ARTXIBOKOA

**Istripuaren ondotik beti lasaitasuna mantentzea komeni da eta zaurituak baldin badaude, 112 telefonora deitu.**

**Irache Kontsumitzaile Elkartea**

## LIBURUAK



KARONTE

**Asel LUZARRAGA**

ELKARLANEAN 2005

Zientzia fikziozkoa dirudien argumentua gure egunetara ekarriz, nobela kilikagarri bat idatzi du Asel Luzarragak, teknologia berriak giza kontzientziaren kontrolerako erabiltzen diren gizartearen posibilitateak arakatzen dituena. Bilbotik Tokiorako joan-etorri zorabiozkoan. Zientzia fikziozkoa dirudien argumentua gure egunetara ekarriz, nobela kilikagarri bat idatzi du Asel Luzarragak. Urtebete koman egin ondoren, Amets Olazar guztiz sendaturik itzuliko da etxera, eta han izango du zain Naroa, 18 urteko lehengusina argentinarra. Ageriko normaltasun horren azpian, baina, gauza arraroak sumatzen hasiko dira: ametsen izaeraren aldaketa, inguruan zelatan dabiltzan pertsonak... Abiapuntu horrekin hasten da Karonte, Luzarragaren bigarren liburua, idazleak berak "zientzia fikzioaren eta thriller-aren artean" kokatzen duen eleberria. Igartza Sariari esker idatzi du.

# AGENDA egunez egun

### MENDI ATERALDIAK

**BAZTAN**

**Apirilaren 3an** Lizartzura ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.
**Apirilaren 10ean** Hondarribiara ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

**ZUGARRAMURDI**

**Apirilaren 10ean** Lezetako Bordara aterako dira Aburia mendi taldekoak.

### ERAKUSKETAK

**AZKAIN**

**Martxoaren 5etik apirilaren 14ra** Didier Biès eskulturgilearen erakusketa Azkaingo Herriko Etxean. Ortzegunero, eskulturgilea bera erakusketan izanen da.

**BERA**

**Apirilaren 4tik 15era** Corrado Masacciren «Zirkoa eta Txontxongiloak» erakusketa zabalik izanen da Kultur Etxean, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara.

### FERIAK

**LESAKA**

**Apirilaren 3an** Erdi Aroko bigarren azoka eginen da herriko karriketan.
Xehetasunak 10. orrian.

### EKITALDIAK

**BERA**

**Martxoaren 31n** Arkupeak Elkartearen Soinketa Eguna eginen da Toki-Ona kiroldegian. Ondotik, bazkaria Zalain eta Zubiondo jatetxeetan.

**SENPERE**

**Martxoaren 30ean eta apirilaren 3an** Hatsaren Poesia ekitaldia eginen da bi egunez Oxtikenean. Olerki irakurketa, aperitifa, bazkaria, Mugaldekoak taldea...

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin)
7 € Rural Kutxako 3008 0060 53 0703304526 kontuan sartu eta
justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.


**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak



ADOS
• ELIZONDO. -2. eskuko pisuak salgai. - Eraikuntza berriko pisuak salgai.
• DONEZTEBE. - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai. - Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
• BERA. -Pisu pare bat salgai. -Terrenoak erosten dira.
• LESAKA. - Erreformatzeko dagoen baserria lur eremuarekin salgai. - Sartzeko prest dagoen pisu ederra salgai.
• BAZTAN. - Erreformatzeko dauden baserri eta bordak salgai.
BAZTAN-BIDASOAN baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580708 / 627 978 636


## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**BERA.** Lizuniagako bidean baserria salgai, baratzearekin. Hiru solairukoa, bakoitza 300 metrokoa. ☎ 948 625411 (denda ordutegian).

**BERA.** Kiroldegiaren ondoan pisua salgai. Hiru logela, sukalde eta komuna berrituak, egongela eta trasteroa. Bajera ere badu, nahi izanez gero. ☎ 661 931727.

## ETXEBIZITZAK
### 102 Erosi

**BORTZIRIAK-MALERREKA-BAZTAN.** Baserria edo etxea erosiko genuke. ☎ 943 392358 edo 652 759248.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**BERA.** Pisu bat errentan hartuko nuke. ☎ 660 334130.

**BERA edo LESAKA.** Pisu ttiki bat edo apartamentu bat errentan hartuko genuke. ☎ 669 137370 (17:00etatik aurrera).

**BERA.** Emakume gazte batek pisua edo apartamentua errentan hartuko luke. ☎ 667 492916.

**ELIZONDO** edo inguruan pisu bat errentan hartuko nuke. ☎ 646 312734.

## ETXEBIZITZAK
### 105 Etxe konpartituak

**BORTZIRIAK.** Etxe edo pisu konpartitua bilatzen dut. ☎ 617 185990.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 111 Bertzelakoak

**LESAKA.** Ileapaindegia eskualdatzen dugu, toki onean eta sartzeko prest. ☎ 670 218232 edo 652 746800.

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Salgai

## LANA
### 301 Eskariak

**Neska bat** eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. Goizez eta arratsaldez, astelehenetik ostiralera. ☎ 650 311212.

**Emakumea** eskaintzen da haurrak eta zaharrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 600 048338.

**C + E gidabaimena** duen mutila eskaintzen da lanerako. ☎ 655 706363.

**Zurgingoan** lehen mailako ofiziala eskaintzen da, sukaldeak, armarioak eta ateak montatzen esperientzia duena. ☎ 669 266192.

**Berako neska** batek lan egingo nuke edozein lanetan. ☎ 690 254714.

## LANA
### 302 Eskaintzak

**Neska edo mutil bat** behar dugu ume batekin jolasteko. ☎ 680 920145.

**BERA.** Jatetxe batean sukalde laguntzailea eta kamarera behar dira. ☎ 650 831392.

**Irakasleak** Hezkuntza Departamenturako. Nafarroan, entzumena eta hizkuntzan 28, soin hezkuntzan 34, ingeleran 120, musikan 10, haur hezkuntzan 106, pedagogian 55. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Espetxeak.** 650 lanpostu librE, 1785 justiziarako, 350 AENArako. Enplegu publikoa. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzailea**, sukaldariak, kamareroak. Lanpostu libreak ikastetxe, erresidentzia, Nafarroako Gobernuan... Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak.** Lanpostu libreak Burlata, Miranda de Arga, Lizarra, Torres del Rio, Barañain eta Iruñan. Eskolaratze Ziurtagiritik aurrera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak.** Abudo sartzeko: udaletxetan, Nafarroako Gobernuan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak**, garbiketa langileak. Lanpostu finkoak ikastetxe, erresidentzia eta udaletxetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** 10 lanpostu libre NUPen. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Mantenimendua**, elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, zurginak... Erakunde publikoetan lanpostuak libre. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Haur Hezkuntza.** 106 plaza gazteleraz, 52 euskaraz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak.** Udaletxetan abudo sartzeko: Iruña, Berriozar, Berrioplano, Lizarra, Fitero, Burlata eta 1151 plaza Estatuan.


ARANTZA
Osiña auzoa

PSIKOANALISTA
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2 D - ELIZONDO

Lan bila zabiltza?
LAN ESKAINTZA
IRAKASLEAK
Hezkuntza Dep.rako Nafarroan, entzumena eta hizkuntzan 28, soin hezkuntzan 34, ingeleran 120, musikan 10, haur hezkuntzan 106, pedagogian 55.
GIDARIAK
Udaletxetarako, Nafarroako Gobernurako plaza libreak.
LAN ESKAINTZA
HAUR HEZKUNTZA
Gazteleraz 106 plaza, euskaraz 52.
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK
Udaletxetan abudo sartzeko: Iruña, Berriozar, Berrioplano, Lizarra, Fitero, Burlata eta Estaturako 1151 plaza.
Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

# ikastola






Tantirumairu ikastola. LESAKA
948 637 308 lesaka@ikastola.net

BERA. Labiaga ikastola.
bera@ikastola.net 948 630 172

IZEN EMATEAK: Apirilaren 4tik 15a bitarte

30 ikastola



**Sampi Aragon**

**Zatoz eta proba itzazu Hyundai markako mendi ibilgailu berriak!**




**Leitzako bidea • ☎948 450 354 • Doneztebe**

# BORTZIRIETAN
# IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006

- ✓ Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
- ✓ Doan
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin
- ✓ Integratzailea
- ✓ Teknologi berriez baliatuta
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
- ✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako Institutuan



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215




TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

# TXIKIAK HEZITUZ HANDITU

## *Izen ematea:*

**Haur eta Lehen Hezkuntza** ***apirilaren 4tik 15era***
**DBH:** ***maiatzaren 9tik 20ra***